



Hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka

Zornotzako Andra Mari ikastolako guraso talde batek ikastetxeko gurasoen eta umeen arteko hizkuntza ohiturak aztertu ditu. Umeak nerabe egiten doazen heinean, gurasoen eta umeen arteko hizkuntza euskaratik gaztelaniara pasatzen dela ikusi dute. Euskararen erabilera indartu gura dute hurrengo urteetan, eta, horretarako, ekintza plan bat garatzen hasi gura dute. • **8. orrialdea**

"Kontua ez da antenak ez ipintzea. Toki eta modu egokian ipintzea gura dugu, inor bizi ez den inguruan"

Mallabia | Gobernu Taldearen baimenagaz, Orange konpainiak antena dorre bat ipini gura zuen San Pedro ermita inguruan. Uhinen eraginak kezkatuta, herritar talde bat antena horren kontra aritu da. Azkenean, ez dute antena ipiniko, baimena atzera bota dutelako. • **13. orrialdea**



JAEDen txartel salmenta erritmo onean doa

Durango | Iazko salmenten erdira heldu dira. Txartelak urtarilaren 6ra arte eskuratu daitezke. • **5. orrialdea**



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



ELKARO JAIALARITZA
GOBERNUO VASCO

- Atzeritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.
- Nazionalitate irakaskuntzak.
- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Urtarrilaren 15etik 31ra
Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

“Gabon bonbon!”, “Urtebarri, zoruek be igarri!”,... eta Gabonak munduan pasatzeko hainbat modu zoragarri

Durangaldeko hainbat herritarrek sorlekutik kanpora pasatuko dituzte gabonak, baina giro gozoa topatu dute munduan zehar



Tallinn hiriko udal plazan (Estonia), urtero ipintzen dute Gabonetako azoka. Kondairak dioenez, handik ei dator Gabonetako arbola ipintzeko ohitura.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Kondaira batek dio Estonia izan zela lehenengoa Gabonetako arbola plaza publiko batean ipintzen. Beste kondaira batek dio haien bizilagun letoniarrak izan zirela lehenengoak. Euskal kanta garaikideago batek galdetzen du ea Olentzero zergatik ez den pasatzen Afrikatik. Bien bitartean, Bizargorri Laponiako lur hotzetan bizi da Rudolph bere elur-orein sudurgorriagaz. Gabonak hotzari lotuta dauden iruditegia dugu hemen, baina ez da elur-malutarik jausten data hauetan Buenos Airesen. Sus-trai katolikoak dituzten herrialdeek abenduaren 25ean ospatzen dute egunik handiena. Kristautasun ortodoxoa nagusi den hainbat herrialde eslaviarretan, baina, (adibidez Errusian, Ukrainan, Serbian) urtarilaren 7a da egun handia. Herrialde islamiarrek, Jesusen jaiotza ospatu barik, gurago dute Mahoma profetaren jaiotza ospatu. Mapamundia hartuta, berehala ondorioztatuko genuke Gabonak data inportanteak direla Mendebaldeko herrialdeetan, eta zer esanik ez Mendebaldeko herrialdeetako azalera handiko supermerkatuentzat eta enpresentzat.

Edozelan ere, anitzak dira Gabonak pasatzeko moduak. Durangaldeko herritarren gehiengoak familia giroan eta etxean pasatuko ditu datozen egun hauek, baina badira Gabonak sorlekutik kanpora pasatuko dituzten Durangaldeko hainbat herritar ere. Kanpoan bizi direnen herritarren bizipenak eta ohiturak gerturatu gura izan ditu ANBOTOk erreportaje honetan, mundutik Durangaldera.

"Gabonak baino lehenago Miami aldera joan izan gara inoiz, Gutarra markako karakol kontserbak erostera"

ORLANDO (FLORIDA, AEB)

Aperribai-Plaza familia: Juan Luis Aperribai, Eva Plaza, Iker Aperribai eta Gorka Aperribai



"Floridan (AEB), Gabonetan, jatekoari ez diote Euskal Herrian besteko garrantzirik ematen. Elkarri opariak egitea da amerikarren gauzarik inportanteena. Diru asko gastatzen dute horretan. Guk, oster, diru gehiago gastatzen dugu janaritan eta edaritan", dio Juan Luis Aperribaik (Iurreta, 1965). Sorterritik urrun hainbat urtean bizi diren arren, Aperribaik eta Eva Plaza bikotekideak (Durango, 1967) osatutako familiak ez ditu etxeko ohiturak galdu. 1983an, lan kontuengatik Durangaldetik AEBetara joatea erabaki zuen bikoteak, eta han finkatu dira harrezkero. "Puntista nintzen. Zesta-puntan nengibilen, eta horrek ekarri gintuen

hona", azaldu du Aperribaik. Urteek aurrera egin ahala, familia handitu dute. 1993an Iker jaio zen, eta 1996an, Gorka.

Karta-jokoa eta itsaskia

"Hemen inportanteagoa da abenduaren 25a, gabon gaua baino. Esker emate egunean egiten duten antzera, indioilarra jateko ohitura handia dute", dio Aperribaik. "Guretzat, baina, garrantzi handiagoa du Gabon gauak. Familiako kideak eta lagunak bat edo beste elkartzen gara. Kartetan egiten dugu. Berandu samar afaltzeko ohitura dugu eta, normalean, arraina edo itsaskia pres-tatzen dugu. Badira urte batzuk karakolak kozinatzen ez ditugula. Miamira joanez gero, lortzen dira, Gutarra markakoak".

Opariei dagokienez, Aperribaik dio Bizargorri dela hango etxeetara opariak eramaten dituen, baina euren etxetik Olentzero eta Mari Domingi pasatzen dira, antza.

1983an AEBetara bizitzera joan eta harrezkero han bizi dira Juan Luis Aperribai eta Eva Plaza. AEBetan jaio dira Iker eta Gorka semeak.



Irene Reina abadiñarra Suitzan bizi da 2009tik hona. Familia osatu du han.



Barazki saldagaz eta hainbat okela motagaz osatua dago fondue chinoise lapikoa.

"Suitzako alde honetan indioilarra eta izokin ketua jateko ohitura dago, baina gehienek *fondue chinoise* delakoa prestatzen dute"

YVERDON-LES-BAINS (SUITZA)

Irene Reina, Simon Baechler, Alex Baechler eta Ariane Baechler

"Familia askok indioilarra jaten dute hemen. Eta ohitura handia dago izokin ketua jateko. Gehienek, baina, *fondue chinoise* delakoa prestatzen dute. Funtsean, lapikokoa da. Barazkiz egindako salda bat prestatu, eta mahaiaren erdian zerbitzatzen da, irakiten dagoela. Haren inguruan, zenbait plateretan, beste hainbat okela mota ipintzen dira: oilaskoa, txahalkia, idikia eta baita zaldikia ere. Bakoitzak gura duen okela zatia sardexkagaz hartu, irakiten dagoen lapikoan sartu eta egosita jaten du gero. Beste hainbat saltsagaz ere laguntzen da *fondue chinoise* delakoa. Curry eta cocktail saltsak erabiltzen dira", dio Irene Reinak (Abadiño, 1987).

Irene Reinak bolada baterako bakarrik esan zion agur bere


sorlekuari, 2009an. Umezain modura hilabete batzuk lanean egiteko, eta, bide batez, frantsesa ikasten segitzeko asmoz joan zen Suitzara, Yverdon-Les-Bains hirira. Baina, gerora, beste lan batzuk aurkitu, bizimodua han eraiki

"Hemen, Gabon zahar gauean eta urteberri egunean familiek ez dute elkartzeko ohiturarik"

eta bertara ezkondu zen. Simon Baechler suitzarragaz ezkondu zenean, haren abizena hartu eta Irene Reina Irene Baechler da hurrezkerok. Ume bi dituzte, Alex eta Ariane, eta hirugarren bat itxaroten dabilta. Otsailean jaiokoa da familiako kiderik gazteena.

Ardo beroa eta eskia

"Hemen, Gabonetako merkaturatara eta eskiatzera joateko ohitura handia dago. Edarien artean, ardo beroa hartzen dute. Ardoa hainbat espeziegaz ondu eta berotzen dute. Arrakasta handia du hemengoan artean", dio Irenek. "Gabonetako otorduei dagokionez, bai Gabon gaua eta bai Gabon eguna Euskal Herrian ospatzen den antzera egiten da: familia giroan afalduta eta bazkalduta. Gabon zahar gauari dagokionez, baina, desberdina da. Urtezahar egunean eta urteberri egunean familiek ez dute elkartzeko ohiturarik. Parrandarako, lagun artean egoteko edo bikotekideagaz egoteko gaua izaten da", gaineratu du.



AUSTRALIA

IRAIA DERTEANO ETA ANDER BIRITXINAGA

"Praka laburretan, hondartzan, uretan eta bero handiagaz pasatuko ditugu aurtengo Gabonak"

"Aurtengo Gabonak ezohikoak izango dira. Praka laburretan, hondartzan, uretan eta bero handiagaz pasatuko ditugu", diote Iraia Derteanok (Iurreta, 1989) eta Ander Biritxinagak (Durango, 1996). Irakaskuntza ikasketak egin dituzte eta Australiara joan dira ingelesa hobetzeko. Pozik daude bidaiagaz, baina herrimina ere igartzen dute. "Gabonak ailegatzan dabilzan heinean, data hauek Euskal Herrian pasatzeko herrimina pizten zaidala sumatzen dut. Amamaren janariaren falta igartzen dut. Mari Domingiri eta Olentzerori eskatuko diet

amamaren janaria tuperretan sartuta bidali diezadaten!", dio Derteanok. Biritxinagak ere antzekoa dio: "Lau hanburgesa eta patata tortilla eskas bat ditugu hemen. Gustura hartuko nituzke amamaren arroz-esnea, gazta on bat eta ogia. Hori bai, Olentzero eta Mari Domingi surf taula baten gainean eta neoprenoa jantzita etorri beharko dira hona!", dio.

Hurrengo asteak lanean emango dituzte, diru apur bat bildu eta bidaiagaz segitzeko. "Urte berrirako asmoetariko bat Zeelanda Berrira bidaiatzea da", diote.



ANN ARBOR (MICHIGAN, AEB)

EUKENE GARITAONANDIA

"Familiagaz eta Laida lehengusinagaz txokolatea hartzeko dudaren falta igarriko dut"

"Halloween jaia amaitzen denean, Gabonetako arbolaren presentzia geroago eta nabariagoa da hemen. Abenduaren 24an, Bizargorrirentzat gailetak prestatzen dituzte etxeetan, fededunak mezatara joaten dira, baina ez dute gure antzeko otordu itzelik egiten. Gabon zahar gaua lagunekin ospatzen da hemen", dio Eukene Garitaonandiak (Iurreta, 1989). Bikotekideak lana Michigan aldean aurkitu zuelako joan ziren hara, orain lau bat urte. "Aurtengo Gabon gaua eta Eguberri eguna Hawaii aldean pasatuko ditugu, eguzkia har-

tzen. Gabon zahar gaua eta Urteberri eguna, oster, lagun artean pasatuko dugu. Kanpaiak entzutean, mahatsik jateko ohiturarik ez dago hemen. Horren ordez, Times Squareko atzera kontaketa ikusten dute".

Garitaonandiak uste du Olentzerori eta Mari Domingiri ez lieketela AEBetan sartzen utziko; beraz, Bizargorri eskatuko dizkio opariak. "Etxekoak hemen agertzea izango litzateke oparirik onena!", dio. Familiagaz eta Laida lehengusinagaz txokolate beroa hartzeko dudaren falta igarriko dut gehien.

JAEDen zozketa solidarioko salmenta "bide onetik" doa eta 30.000 txartel inguru saldu dituzte orain arte

Urtarrilaren 6ra arte eskuratu daitezke txartelak, 1,5 eurotan, Andra Mariko elizpean dagoen postuan

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Hilabete pasatxo joan da JAEDek Gabonetako stand solidarioa zabaldu zuenetik eta, momentuz, txartelen salmenta "bide onetik" doala adierazi du Jose Carrera zuzendaritzako kideak. Iaz 60.000 txartel saldu zituzten guztira, eta aste honetan kopuru horren erdia gainditu dute. Momentuz, 30 bat mila txartel saldu dituzte Andra Mariko elizpeko postuan. Oraindino beste 16 egunean eskuratu daitezke txartelak. Izan ere, urtarilaren 6an egingo dute sarien zozketa.

Batutako dirua pobrezia energetikoan daudenei laguntzeko erabiltzen dute, besteak beste

Erakusmahaian askotariko opariak dituzte, bidaiak tarte-ko. Euretariko bat nobedadea da: Mediterraneotik itsas-bidaia, lagun birentzat. Kanariar Uhartetarako bidaia mantendu egin dute. Ipad-ak, mugikorak eta antzerako gailuak "teknologikoki berrienak" direla azaldu du Carrerak. Berdina gertatzen da Renault Clio autoagaz eta bizikleta elektrikoagaz ere.

Beharrezana dutenentzat

Urtea joan eta urtea etorri, JAEDen zozketa solidariotik lortutako dirua Durangon eta Iurretan beharrezana duten familiei laguntzeko erabiltzen dute. Janaria erostea da laguntzeko modu bat, baina ez bakarria. "Pobrezia energetikoa

ere arazo bat da askorentzat, batez ere azarotik otsailera", Carreraren esanetan. "Badaude familiak ur beroa ordaindu ezin dutenak, eta horiei faktura ordaintzen laguntzen diegu", adierazi du.

Laguntzak eman aurretik, kasu bakoitza aztertzen dute, beste eragile batzuekin (Lanbide, Gurutze Gorria...), benetako premia dagoela eta laguntzetan bikoiztasunik ez dagoela segurtatzeko. "Ematen ditugun laguntza guztiak egiaztatuta egoten dira", gaineratu du.

Urtean zehar durangarren artean sentitzen duen elkartasunagaz "esker oneko" agertu da Carrera. "Kirol elkartek, norbakoak... Urtean zehar mota askotako ekintzak egiten dira JAEDi laguntzeko, eta hori goraipatzekoa da", gaineratu du. Elkartasun horren adibide da aurren Bizidun elkartaren laguntza dutela asteburuetan zozketa solidarioko postuan txandak betetzeko. El-

"Urtean zehar mota askotako ekintzak egiten dira JAEDi laguntzeko, eta hori goraipatzekoa da"

karteko 33 lagun dabilta txandak egiten. Andra Mariko standean diru ekarpenak egiteko kutxa bat ipini dutela gogoratu du Carrerak. Horrez gainera, JAEDen loteria herriko hainbat komertziotan eskuratu daiteke. 51.384 da zenbakia.



Opari batzuk eurek erositakoak dira eta beste batzuk dohaintzan jaso dituzte.



**Etxean bezala...
0,1,2 URTE**

INSKRIPZIOAK ZABALIK



SAN ANTONIO
IKASTETXEA
Irakasleon Kooperatiba
94 681 67 76
www.sanantonio.eus
ikastetxea@sanantonio.eus





Renault Clio autoa eta bizikleta elektrikoa dira zozketako oparietarikoa bi.

Zeharkale itxura hartu duen lurretako N-634 errepideko lanak azken fasean sartu dira eta urtarrilerako amaituko dituzte

Herriaren "kohesio handiagoa" lortuko dela azpimarratu du Iñaki Totorikaguena alkateak, eta oinezkoentzat eta bizikletentzat espazioa irabaziko dela



Amilburuko zeharbidearen gaur egungo irudi bat (ezkerrean) eta lanak amaitutakoan zelán geldituko den erakusten duten infografia (eskuman).

IURRETA • AITZIBER BASAURI

N-634 errepide nagusiak itxura berria hartu du Iurretan. Maiatzean hasitako lanak azken fasean sartuta daude, eta urtarrilean egongo dira amaituta. Iñaki Totorikaguena

"Herria banatzen zuen lubakia ezabatu dugu eta aldaketak eragingo ditu aurrera begira"

Udalak 922.505 euro ipini ditu. Gainerakoari Bizkaiko Foru Aldundiak egingo dio aurre.

Herriko bideekin lotura hobetze aldera, biribilgune bi egin dituzte, eta 2,5 metroko zabalera duen espaloia eta bidegorria egokitu dituzte zeharkalearen albo bakoitzean. Goratutako zebrabideak eta trafikoa ordenatzeko eta abiadura neurtzeko semaforoak ere ipini dituzte. Izan ere, errepide zati horretan ezingo da 40 kilometro orduko abiadura gainditu.

tzako espaloia horrek aparkalekua eta zeharkaleko autobus geltokiak lotuko ditu. Udalak eskatutako neurria izan da eta Bizkaiko Aldundiak egin dio aurre kostuari, Totorikaguena azaldu duenez.

"Ibilgailu kopurua jaisteko, bestelako neurriak behar dira. Asko motelduko da abiadura"

Iurretako alkatearen berbetan, N-634 errepidearen berrantolaketa lanekin herriaren "kohesio handiagoa" lortu gura izan dute batetik, eta oinezkoentzako eta bizikleten-

tzako espazioa irabaztea bestetik. "Etorkizunerako oinarriak ipini dira. Herria banatzen zuen lubakia ezabatu dugu, eta horrek aldaketak eragingo ditu aurrera begira", azaldu du. Aldaketa horien adibide moduan, Olaburu kaleko lanak aipatu ditu: noranzko bakarrekoa bihurtuko da eta bizikletentzat bidegorria egokitu dute.

Zeharkaleagaz, trafikoaren abiadura asko motelduko dela uste du Totorikaguena. "Ibilgailu kopurua jaisteko, bestelako neurriak behar dira, baina asko motelduko da ibilgailuen abiadura". Gaineratu duenez, "oinezkoek eta bizikletek hartuko dute lehentasuna orain arte ibilgailuek izan duten tokian. Herri barruko zati bihurtuko da".

DATUAK

- 700 metro dituen zeharkalean goratutako bost zebrabide, eta abiadura neurtzeko semaforoak
- Biribilgune bi: Askondo kalearen parean eta Durangoko Francisco Ibarra kalearen parean
- 2,5 metroko zabalera duen espaloia eta bidegorria
- 40 km/orduko muga
- Obrak 1.557.000 euroko aurrekontua

alkateak azaldu duenez, egunotan amaitu gura dituzte zeharkale berriaren asfaltatze eta margotze lanak. Obrek 1.557.000 euroko aurrekontua izan dute, eta Iurretako

A-8ko aparkalekurako bidea Bestalde, A8 autobideko aparkalekuraino doan espaloia egokitu dute, hasierako egitasmoan aurreikusi ez zuten arren. Oinezkoen-

EAJren "konfiantzazko botoagaz", EH Bilduk aurkeztutako aurrekontuek aurrera egin dute Elorri

Gobernu Taldeak 2020rako aurkeztutako aurrekontuen kontra bozkatu du Elkarrekin-Podemos Herriaren Eskubideak; EAJ, ostera, abstenitu egin da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehen iluntzean, 2020ko udal aurrekontuak onartzeko asmoz, osoko bilkura egin zuten Elorri. Bertan, gobernu taldeak 9.100.000 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu zuen. Idoia Buruaga alkateak adierazi zuenez, Elorrio hobetzeko herritarren, herriko elkarten, udaleko langileen eta oposizio alderdien iritzia jasota eta eguneroko parte hartzea bultzatuta sortutako aurrekontuak dira gobernu taldeak aurkeztutakoak. "Aurrekontuek Elorrioko bizi kalita-

tea hobetzea dute helburu, elorriarrak erdigunean ipinita", esan zuen alkateak.

Mikel Arruabarrena EAJren bozeramaileak "konfiantzazko botoa" emango zutela eta abstenitu egingo zirela adierazi zuen. "Negoiazio batzar bi egin ditugu gobernu taldeagaz, eta berba eman digute guk proposatutako hainbat puntu jorratuko dituztela. Beraz, konfiantzazko botoa emango diegu", azaldu zuen EAJko kideak. Arruabarrenaren esanetan, Betsaide inguruko errepidearen inguruko azterketa

tekniko bat egitea, Nagusien Etxe ingurua egokitzea eta kiroldegi berri bat eraikitzeak pausoak ematen

Abstentzioaren bitartez konfiantza ematea eskertzen dutela adierazi zuen alkateak

hastea eskatu dute, besteak beste.

Elkarrekin-Podemos Herriaren Eskubideak, ostera, aurrekontuen kontra bozkatu zuen. "Hiri Antola-

mendurako Plan Orokorra berrikus-tea eskatu dugu, gure ustez iraungita dago eta. Baina gobernu taldeak ez du onartu. Beraz, kontra egingo dugu", esan zuen Agustin Fernandez bozeramaileak. Horrez gainera, parte hartzerako partida bat egotea beharrezko ikusten dutela eta Nagusien Etxea ez dutela Aldapebeitian egoki ikusten adierazi zuten.

Orain zortzi urte 12 botogaz onartutako HAPOa iraungi gabe dagoela erantzun zuen Buruaga alkateak, eta teknikariek esaten dutenean berrikusi egin behar dela,

horixe egingo dutela. Bestalde, nabarmendu gura izan zuen gobernu taldeak egunerokoan lantzen duela parte hartzea. "Iaz, Aldapebeitiako gaia zela-eta, parte hartze prozesu bat martxan ipini genuen. 500 herritarrek parte hartu zuten eta Aldapebeitian Nagusien Etxea gura zutela esan zuten. Orain, zuek hori ez dela egin behar diozue. Hori da parte hartzea bultzatzea?", esan zuen. Bestalde, abstentzioaren bitartez konfiantza ematea eskertzen dutela eta EAJ "ez dela damutuko" esan zuen alkateak.

“Bertakoak eta ekologikoak diren produktuak saldu eta erosi daitezkeen leku bat da Anbotopeko denda”

Urte hasieragaz batera, Elorrion produktu ekologikoen denda berri bat zabalduko dute; astelehenetik zapatuta egongo da zabalik, goizez zein arratsaldez

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte berriagaz, denda berri bat zabalduko dute Elorrion. Herritarrei bertakoak eta ekologikoak diren produktuak eskaintzeko asmoz, bederatzi ekoizlek Anbotopeko denda zabalduko dute udalaren laguntzagaz.

Zer da Anbotopeko?

Kike Bilbao: Gauza askoren artean, bertakoak eta ez hain bertakoak eta ekologikoak diren produktuak saldu eta erosi daitezkeen leku bat da. Salmenta puntu bat da, asteko erosketa egiteko aukera emango duena. Horrez gainera, elkargune bat izatea ere gura dugu, eta bertan beste aktibitate batzuk egitea; esaterako, elikadura burujabetzaren inguruko berbaldiak ematea.

Zelan erabaki duzue denda zabaltea?

Anton Solozabal: Orain hiru bat urte, produktore eta kontsumitzaile batzuk batu ginen, zerbait egiteko premia ikusten genuen eta. Bakoi-



tza bere aldetik genbiltzan, handik eta hemendik saltzen, eta leku finko baten beharrez ginen.

Kike: Horretan genbiltzala, Apatako igerilekuetan taberna hartzeko au-

kera sortu zitzaigun, eta horrek bultzada bat eman zigun. Ikusi genuen horrelako proiektu batean sartzea zaila zela eta atzetik lan asko zegoe-lagaz berba egin...

Zer produktu aurkituko dituzte herritarrek?

Anton: Gure asmoa eguneroko erosketak bertan egiteko aukera eskaintzea da. Ezingo dugu denerik saldu, baina gauza asko bai.

Kike: Arrain freskoa eta izoztutako generoa izan ezik, gainerako produktuen zerrenda osatzea lortu dugu ia-ia. Olia, txerri eta txahal okela, fruta, barazkiak, lekariak, ogia, kontserbak, xaboiak... Denerik erosi ahalko da.

Anbotopekon edozeinek erosi ahal izango du ala derrigorrezkoa izango da bazkide izatea?

Anton: Edozeinek erosi ahalko du gure dendan. Baina bazkideek onura batzuk izango dituzte. Esaterako, %5eko deskontua izango dute, baita produktu espezifiko batzuetan lehentasuna ere.

Kike: Gainera, bazkideek batzarretan parte hartzeko aukera izango dute, eta baita boto eskubidea ere. Printzipioz, ez dugu proiektu itxi bat izatea gura, eta zalantzak di-

tuztenei edo pertsona nagusiei ere aukera eskaini gura diegu bertan erosteko. Egia esan, bazkideak egitea ere badugu helburu, baina gura duenak arazorik barik erosi ahal izango du bertan.

Produktoreen batek proiektura batzea gura badu, izango du horretarako aukera?

Anton: Bai, baina sartu gura duenak neurri batzuk bete beharko ditu, eta zehaztuta ditugun arauak jarraitu beharko die.

Zer ordutegi izango du?

Kike: Denda astelehenetik zapatuta zabaltea izango da asmoa. Astelehenetik barikura, goizetan pare bat orduan egongo da zabalik, eta arratsaldetan beste pare bat orduan. Zapatuetan, osterara, goizean baino ez dugu zabalduko.

Zerbait gehitzeko?

Kike: Eskerrak eman gura dizkiogu Elorrioko Udalari lokal hau ixtearren. Irabazi asmorik bako proiektua da gurea, eta horrelakentzat gauza handia da lokala izatea.

GLC Berria. Izaera inkonformista.

Hurrengo lorpena hobe izango delakoan, lortutakoaz gozatzea kostatzen bazaizu, biok ikuspegi bera daukagula esan nahi du, eta horixe da SUV arrakatsatuena berrasmatzera eraman gaituena. Ikusi GLC Berriak daukan moldakortasun berritzailea eta ahotsaren bidez eragiten den MBUX adimen artifizialeko sistema aurreratua.

GLC Berria 220d 4MATIC 48 kuotatan.

AMG Line, ADVANTAGE paketea eta Night paketea dituen.

360€/hilean¹

Sarrera: 13.899,50€. Azken kuota: 27.962,61€².
ITN: %5,99. UTB: %7,17

Ziklo nahasian kontsumo (l/100 km): 5,9-6,9.
CO₂ isurtzea (g/km): 156-182 (NEDC: 137-144).



Mercedes-Benz

Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala
C/Retuerto,38. 48903 BARAKALDO. Tel.:94 497 00 74. Boroa enpresa-parkea, 2A-3 part. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47.
C/Botica Vieja, z.g. 48014 BILBAO (DEUSTU). Tel.: 94 447 08 40. Iparragirre etorbidea,90. 48940 LEIOA. Tel.: 94 463 11 75
www.aguinaga.mercedes-benz.es

“Euskararen erabileran sakontzeko dinamika berri bat sortzeko asmoa dugu”

Zornotzako Andra Mari ikastolako guraso talde batek ikastetxeko gurasoen eta umeen hizkuntza ohiturak aldatzea du erronka. Euskararen presentzia eta erabilera indartu daitezen, ekintza plan bat garatu gura dute datozen urteetan



Andra Mari ikastolako gurasoak
Euskara taldeko kideak
Zornotza

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Andra Mari ikastolako guraso talde batek 'Euskara taldea' sortu zuen orain hainbat urte. Ikastolako gurasoen hizkuntza ohiturekin kezkatuta, diagnostiko txiki bat egin dute orain, eta, hemendik aurrera, euskararen erabileran sakontzeko bideak ipini gura dituzte martxan.

Ikastolako gurasoen arteko hizkuntza ohiturekin kezkatuta zaudete. Zein da egoera?

Amaia Sarrionandia: Joan zen ikasturtean inkesta bat egin genuen ikastolako gurasoekin. Euskararen erabileraren eta hizkuntza ohituren argazkia zein zen ikusi gura genuen. Guraso guztiei helarazi genien inkesta, eta konturatu ginen

gurasoen euskara ezagutza oso altua zela. Baina erabilera ez zetorren ezagutzagaz bat, eta horrek etxeko ohituretan ere bazuen isla.

Maria Aldazabal: Etxean, umeek adin bat betetzen duten heinean, hizkuntza ohitura euskaratik gaztelaniara pasatzen dela ondorioztatu dugu.

Asier Bilbao: Gurasoak umeak ba-

tzera datozen momentuan ere egin genuen ikerketa. Ordura arte genituen susmoak baieztatu ziren: ume txikiak dauden ikastolako aldean gehiago erabiltzen da euskara. Hiru gurasotik bik. Ume nagusiagoak dauden ikastolako aldean jaitsi egiten da euskararen erabilera: hirutik batek egiten du umeekin euskaraz.

Zein faktorek eragiten dute adinaren arabera erabilera gainbehera hori?

A.S.: Ikertutakoaren arabera, ohitura, lotsa, komunikabide eta kultura kontsumoa edo euskararekiko aurreiritziak dira faktoreetariko batzuk.

A.B.: Gurasoek euskara ez dakitela dioen mitoa botatzeko ere balio izan digu neurketak. 10 gurasotik 7 edo 8 euskaraz moldatzen dira eta bat edo bi dira zailtasunak dituztenak.

Aztertu duzue biderik egoera aldatzeko?

A.S.: Joan zen barikuan kafe tertulia bat antolatu genuen. Hainbat guraso gonbidatu genituen eta gai honi helduta aritu ginen eztabaidan. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta buruan 'klik' egiteko moduak bilatzen ari gara.

Iñaki Kortabarria: Dinamika berri bat sortzen hasteko pausoak emango ditugu. Ideia polit asko mahaigaineratu ziren kafe tertulian. Ideia konplexuagoak ere bai. Dena dela, argi dugu hau ez dela ikasturte baterako zerbait, hurrengo urteetarako bide bat baino.

Ezer egiten ez badugu, erretzeko arriskua dago.

A.S.: Ikastolaren esparru guztietara hedatu beharreko zerbait da.

Euskara taldeko kide zareten heinean, kezka hau zuena bakarrik da ala gainerako gurasoena ere bada?

I.K.: Ardura beti egon da hor, eta ikastetxe denetan. Askotan iruditzen zait irakasleak ez direla gurasoen eremuetan sartzen, haiena ez delakoan. Gurasoek ere berdina egiten dugu, baina alderantziz.

“**Nerabeek ikusi behar dute posible dela amorruari, drogei, maitasunari, edo sexuari buruz euskaraz berba egitea**”

Iruditzen zait garrantzitsua dela arazoari komunitate bateratu batek lez erantzutea. Euskara ez da zerbait akademikoa. Horrela bizi gura dugu.

Zelan bultzatu daiteke euskara balio positiboekin transmititu eta lotzea?

M.A.: Etxean zein ikastolan jasotakoak maitasunagaz lotuta joan behar du. Euskararekiko maitasun batez, balio erantsi batez. Alde horretatik, gizarte lez kale egin ote dugun irudipena dut.

I.K.: Gu gazteagoak ginen sasoian, argia zen euskararen aldeko apustua, egoera politikoagatik edo dena delakoagatik. Burugogorkeria moduko batek eragin zuen euskarari garrantzia ematen. Oraingo egoerak, baina, beste zerbait eskatzen du. Nerabeengana hurbiltzeko, haien hizkuntzan egin behar dugu berba. Amorruez, drogez, maitasunaz, sexuaz edo dena delakoaz euskaraz berba egitea ere posible dela ikusi behar dute.

300 parte-hartzaileguz estreinatu da Zornotzako lehen bertso-paper lehiaketa

Eta abar bertso eskolak egitasmoaren "arrakasta" nabarmendu du. Umeen, nerabeen, gazteen eta helduen maila egon dira. Sari banaketa abenduaren 4an egin zuten

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotza zentroko ekitaldien aretoa lepo bete zen abendu hasieran, bertso-paper lehiaketaren lehenengo edizioaren sari banaketan. Zornotzako Eta abar bertso eskola pozik agertu da emaitzagaz, egitasmoaren lehenengo edizioa "arrakastatsua" izan delako. Sariak bertso eskolako kideek banatu zituzten, eta ekitaldi amaieran Zornotzako Inun musikariak emanaldi txiki bat eskaini zuen. Luntx txiki batez amaitu zuten sariketa.



Zornotza zentroko aretoan egin zuten sari banaketa.

Getxoko Xixili taldeak irabazi du Kine Rally film laburren bosgarren edizioa

ZORNOTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bosgarren urtez, Kine Rally film laburren lehiaketa antolatu dute Zornotzan. Domeka eguerdian batu ziren lehiaketan parte hartu zuten 10 taldeak, Zornotza Aretoan, eta Getxoko Xixili taldea izan zen irabazlea. Jone Ibarre-

txek, Paula Brezok eta Mikel Alonsok "emakume berezi biren" arteko amodio historia kontatzen dute. Epamahaikideek adierazi dutenez, filmaren umore sena, gidoiaren kalitatea eta teknika nabarmendu dituzte, batez ere.



Domekan egin zuten Kine Rally film laburren lehiaketa, Zornotzan.



www.gualbiasesores.com

- ✓ Aholkularitza fiskala
- ✓ Kontabilitate-aholkularitza
- ✓ Merkataritza eta finantza-aholkularitza
- ✓ Lan-aholkularitza
- ✓ Kontu-auditoretza
- ✓ Aholkularitza juridikoa

**Bezera, bere enpresako kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Kiroldegiko kudeaketa lehiaketara aterako dute Abadiñon, eredua aldatzeko asmoz

Abadiñoko Udalak kudeaketa eredua eta kiroldegiko makinak aldatu gura ditu 2020an



Abadiñoko kiroldegiko kudeaketa eredua polemika iturri izan da.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2019an hainbat izan dira Bizkaiko kiroldegietako langileek lan hitzarmen "duin" baten alde egin dituzten lanuzteak. Lanuzte horiek eta Abadiñoko kiroldegiko kudeaketa eredua polemika iturri izan dira azken hileotan. Egun, kiroldegia udalarena den arren, Emtesport enpresak du kudeaketaren ardura osoa. Aurrerantzean, oster, kudeaketa hori aldatu, zerbitzuen prestazioa egin eta lehiaketara aterako dute kudeaketa. "Egun, enpresak du kiroldegia ardura osoa. Aurrerantzean, oste-

ra, udalak eskumen gehiago izango ditu eta kiroldegia kontrola izango dugu", adierazi du Mikel Garaizabal alkateak.

EH Bilduk begi onez ikusi du kudeaketa eredua aldatzea, eta bidea municipalizaziorakoa izan beharko litzatekeela esan dute. Hala ere, Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramaileak jakinarazi du udalak 300.000 euro inguru ordaintzen dizkiola zerbitzuarengatik Emtesport enpresari, eta aurtun zerbitzua ez dela osotasunean eman. "Lanuzte sasoiaren zerbitzurik eman ez duenez", EH

Bilduk uste du udalak ez liokeela Emtesport enpresari diruaren %100 eman behar, eragindako kalteak islatuko lituzkeen "zati proportzionala" baino. Bestalde, kaltetuak izan diren erabiltzaileei begira, enpresari presioa egin diezaion eskatu dio koalizio abertzaleak udalari, enpresak kalteordainak itzuli ditzan.

Zerbitzuaren kudeaketa aldatzeaz gainera, 2020an kiroldegiko makinak ere aldatuko dituztela jakitera eman du alkateak. Aurrekontuetan horretarako diru atal bat gorde dutela adierazi du.

Iturriagaetxebarriaren behiak Leioako Azokan garaile

Barbara izena duen 1.461 kiloko behi txarolesagaz 150 euroko saria eta txapela irabazi zituen joan zen domekan



Jacinto Iturriagaetxebarria bere ilobagaz.

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Abadiñoko Gaztelua auzoko Jacinto Iturriagaetxebarriaren behiek errekorrak hausten jarraitzen dute. Oraingo honetan, Leioako Azokan lortu du garaipena. Joan zen domekan, Bizkaiko abelbururik onenak bildu ziren azokan. Iturriagaetxebarriak sei behi eraman zituen hitzordura. Gazteluarren hiru behi izan ziren pisurik gehien izan zutenak. Lehenengo saria Barbara behi txarolesak jaso zuen, eta 150 euroko saria eta txapela Abadiñora joan ziren. 1.461 kilo pisatu zuen Barbarak.

13 parte-hartzailearen artean lehiatu zen Iturriagaetxebarria abadiñarra. Bere behiak ezagunak dira Leioako Azokan. Sei urtean

Iturriagaetxebarriak sei urtean parte hartu du, eta sei urtean lehenengo saria eraman du etxera

parte hartu du, eta sei urtean lehenengo saria eraman du etxera. Aurtun ere aurreikuspenak bete ditu.

Baserriko produktuen azoka antolatuko dute domekan lehenengoz Garain

GARAI • JONE GUENETXEA

Gabon aurreko azkenengo erosketei begira, baserriko produktuen azoka egingo dute lehenengoz Garain, Urkiola Landa Garapenak eta udalak antolatuta. 12 ekoizle euren produktuak salgai ipiniko di-

12 ekoizle euren produktuak salgai ipiniko dituzte udaletxe ondoko postuetan

tuzte udaletxe ondoko egongo diren postuetan. Besteak beste, txakolina, gazta, txerriak, ogia, pastelak, Garaiko kontserbak, Garaiko garagardoa eta Eloorrioko berakatz beltza ipiniko dituzte salgai.

Garaiko Herriko tabernan, auzo bideetan eta ur horniduran hobekuntzak egitea aurreikusi du udalak

Asteleheneko osoko bilkuran, hainbat proiektu garatzea ahalbidetuko duen aurrekontua onartu zuten, aho batez

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garain astelehenean egindako osoko bilkuran, 2020ko aurrekontuak onartu zituzten, aho batez. Guztira, 624.800 euroko aurrekontua onartu dute. Herriko ahozko ondarea jasotzeko proiektua martxan ipintzea, toponimia azterlana eguneratzea, tokiko zuhaitz espezieen hedadura handitzea eta herriko elkartei emandako diru-laguntzak handitzea aurreikusten dute aurrekontuek.

Inbertsio nagusiak

Inbertsio nagusien artean, hainbat proiektu nabarmentzen dira. Batetik, Solagarai, San Migel eta Urrustiko ur-biltegiak konponetzea aurreikusi dute (40.000 euro guztira). Bestetik, Herriko taber-

nan hobekuntzak egingo dituzte, bertako isolamendua hobetzeko eta hezetan arazoak konpontzeko. Udal langileentzat aldagelak ipiniko dituzte eta bizikletak garbitzeko leku bat egokituko dute. Beste 38.000 euro auzo bideen konponketarako eta mantenurako bideratuko dituzte.

Era berean, Garaiko kultur taldeei eskainitako diru-laguntzak handitzea onetsi du udalbatzak. Gainera, Gerediaga elkarteak antolatzen duen Euskal Herriko Artzain Txakurren txapelketa 2020an Garain antolatuko dela aurreratu dute. Orain arte Axpen (Atxondo) egin izan dira txapelketak, baina "urte birik behin txapelketa Garain jokatzeko da asmoa", esan dute.



Asteleheneko plenoko irudia.

Enpleguaren eta formakuntzaren iturburua: lan munduko haziak ereitetik, fruituak jasotzera pasatuko da Behargintza

Elkoroiribek gidatutako lantaldeak orain arteko zerbitzuak garatu eta tresna berriak sortzeari ekingo dio. Argi dute iparra. Durangaldean enpresa sorkuntzaren arloan erreferente izatea eta enplegua sustatzea dute helburu

BEHARGINTZA • EKAITZ HERRERA

Behargintzako lantaldeak oso argi du zein den iparra: Durangaldeko herritarrak lan mundura sartzen edo egokitzen laguntzeko zerbitzua eskaintzeaz gainera, eskualdeko ehundura sozioekonomikoan eragitea ere badu helburu. Ipar horretara ailegatzeko, baina, iparrorratz lana egiten duten lan-tresnak ditu martxan: gazteen enplegugarritasuna sustatzeko programak, Hazilan proiektua, Alkarregaz Eraikiz jardunaldia, Lan Berri programa, Gizarte Garapenerako jarduerak eta Ekonomiaren garapenerako aholkularitza zerbitzuak dira, besteak beste, tresnetako batzuk.

Enpresen eta hezkuntzako eragileen sinergiak garatuko dituzte, Alkarregaz Eraikiz egitasmoagaz

Amankomunazgoko presidente Mireia Elkoroiribek iparra zein den argi izan du hasieratik, eta hantxik adierazi zuen kargua hartu berrian. Enplegua sustatzeko erronka bere gain hartu zuen, horretarako enpresen arteko saretzea bultzatuta eta aurrera begirako aukera berriak sortuta. Horregatik, orain arte martxan egondako hainbat proiektutan sakondu eta



Mireia Elkoroiribe Amankomunazgoko presidentea (erdian), Aitziber Txakartegi (ezkerrean) eta Maria Jesus Ormaetxea teknikariek lagunduta.

berriak diren beste zenbait garatuko ditu datozen urteetan, Behargintzako lantalde osoagaz batera.

Programak, martxan

Helburu horren fruitu izan da joan zen azaroan egin zuten Alkarregaz Eraikiz jardunaldia. Ikastetxe, enpresari eta erakunde publikoetako hainbat ordezkariak parte hartu zuten topaketan. Enpleguari lotutako sinergien lehenengo harria ipini zuten, aurrerantzean etorriko denaren bide orria garatzen

segitzeko. Elkoroiribek dioenez, "esperientzia arrakastatsua" izan zen ordukoa, eta "garrantzitsutzat jotzen dugu egitasmo honegaz aurrera jarraitzea. Gainera, ekintzailletza, enplegu eta hezkuntza arloei lotutako talde espezifikoak sortuko ditugu datorren urtean".

Lehiakortasun poloari beste bultzada bat ematea ere badago Behargintzaren etorkizuneko erronken barruan. "Hausnarketa estrategikoa egin gura dugu lehenengo, ondoren, egiazko bultzada bat ema-

teko. Argia da helburua: Durangaldean erreferente izatea gura dugu enpresa sorkuntzen arloan".

Gazteak ere bai

Gainerakoan, orain arte berebiziko arrakasta izan duten beste hainbat programekin ere jarraituko dute. "Lanberri, Hazilan edo enplegu formakuntzarako programekin" jarraituko dute, baina gazteen gan arreta ipinita. Elkoroiribek aurreratu duenez, "gazteen enplegugarritasunari lotutako orain ar-

teko programak garatzeaz gainera, "programa berri bat ere" ipiniko dute martxan: *Gazteak Helburu*. 29 urtetik beherako gazteei zuzendua egongo da.

Elkoroiribek aurreratu duen beste lanildoetako batek Eusko Jaurlaritzaren Lanbide zerbitzuagaz du zerikusia: "Lanbidegaz lankidetzan arituko gara orientazio profesionalerako zerbitzu bat abian ipintzeko, pertsonaren inguruabar profesionalak kontuan hartuta, haren gaitasunak eta interesak zehazteko eta ikaskuntza-ibilbide indibiduala

"Lanbidegaz lankidetzan arituko gara, orientaziorako zerbitzu bat abian ipintzeko"

kudeatzeko, enplegua bilatzeko edo enpresa-ekimena abiatzeko."

Ateak zabalik daude

Behargintzak eskualdeko erdigunean bertan du bere egoitza: Durangoko Laubideta kalean, Oinarriko Lanbide Heziketa ikastetxea dagoen eraikin berean. Bertan teknikari lanetan diharduten Aitziber Txakartegik eta Maria Jesus Ormaetxeak besoak zabalik hartzen dituzte aholku bila doazen guztiak. Dela ikasleei praktikak bilatzea, dela ikastaroak antolatzea, dela enpresak sortzeko aholkularitza zerbitzua ematea, ateak zabalik dituzte.

Informazio eta kontsulta gehiagorako, herritarrek *behargintza.mdurango@bizkaia.org* helbide elektronikora eta 946232522 telefonora jo dezakete.

Behargintzako ikastaroetan parte hartzen duten denek diote ikasitakoak aldaketa sakona eragin diela bizitzan

Lehenaldiaren eta etorkizunaren arteko inflexio puntua dira ikastaroak, arrakasta profesionala lortzen laguntzen dutenak. Hazilan ikastaroa da horietako bat

MOTIBAZIORAKO IKASTAROAK • E.H.

"Ikastaroan izena eman aurretik galduta nengoen. Ez zegoen ezelango lanik enpresetan. Baina ikastaroa amaitutakoan, motibazioz gainezka nengoen". "Nire bidea artezteko balio izan dit ikastaroak. Nire interesak zeintzuk diren eta aurrerantzean zelan jokatu behar duan ikasi dut". "Hazilan ikastaroak aldaketa sakona eragin du nire bizitzan. Galduta eta lan bila dabilen edonori gomendatuko nioke". Testigantza horiek guztiak Behargintzak eskaintzen dituen ikastaroetan parte hartu duten hainbat herritarren bizipenak dira.

Hazilan ikastaroa da horietariko bat. Goi-mailako ikasketak izan baina lanik barik daudenentzat zuzendutako ikastaroa da. Bertan, zeharkako gaitasunak lantzen dituzte lehenengo, gero enpresetan

praktikak egiteko. Behargintza bera arduratzen da ikasleari gura duen tokian praktikak lotzeaz. Bakoitzak gura duena garatzea ahalbidetzen du horrek, eta bistan denez, bakoitzaren arrakasta pertsonala lortzeko giltzarria izaten

da. 2016an egin zuten lehenengoz, eta ordutik hona 55 bat herritarrek parte hartu dute ikastaroan. Beste programa batzuek gazteen enplegugarritasuna sustatzea edo egoera larrian dauden langabeei laguntzea dute helburu.



Zenbakiak adierazgarriak dira: Behargintzak 60-70 bat enpresa inguru sortzen laguntzen du urtean Durangaldean

Kualitatiboki egiten dena kuantitatiboki aztertzea tresna egokia da Behargintzak enpleguari egiten dion ekarpenaren garrantzia nabarmentzeko. Datuak kontsultatzea besterik ez dago: urtero,

ten dituzte guztira. Azkenik, ibilbidearen amaieran, fruituak ailegatzan dira: urte osoan zehar, eta gutxi gorabehera, Durangaldeko 60-70 bat herritarrek hartzen dute alta jarduera ekonomikoetan, horietariko gehienek enpresaburu eta autonomo lez.

Urtean 150 bat herritarrek jotzen dute atea enpresak sortzeko zerbitzuan

150 herritarrek jotzen dute atea enpresak sortzeko Behargintzak duen zerbitzuan. Enpresa bat martxan zelan ipintzen den aholkatzeko, 750 kontsulta egi-

Prestakuntza lanbakoei

Aurten, gizarte garapenerako 27 prestakuntza-ekintza eskaini dituzte Behargintzan. Horien erdiak 45 urtetik gorakoei edo iraupen luzeko langabeei zuzenduta egon dira. Ekintzaile berriei prestakuntza ere eskaintzen zaie, bai enpresa sortzeko hasierako fasean, bai enpresa merkatuan sendotzeko fasean ere.

Durangaldeko Berbalagunek 'Mendilagun' egitasmoa ipini du martxan, euskara eta mendizaletasuna batzeko

Durangaldeko "ingurune pribilegiatua" baliatuta, "eskualdea hobeto ezagutzeko, mendi irteerak egiteko, eta euskara praktikatzeko aukera" ematen du egitasmoak. Zapatuan egin zuten lehenengo irteera, baina gehiago antolatzen dabilta

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ikusi mendizaleak baso eta zelaia. Mendi tontor gainera igo behar du. Mendira zelan igo, eta euskaraz, bistakoa denez. Kantu eza-gunari gorazarre eginda lez, Durangaldeko Berbalagun sareak *Mendilagun* egitasmoa ipini du martxan. Hau da, euskara praktikatu bitartean mendi irteera atsegin batez gozatzea ahalbidetzen duen egitasmoa. Joan zen zapatuan egin zuten lehenengo irteera. Iurretatik hasita, Garai, Berrizko baserri auzo batzuk eta Abadiñoko Gerediaga auzoa zeharkatu zituzten oinez. 15 bat herritar batu ziren guztira, eta gehiago batzea gura dute aurrerantzean.

Irati Anakabe Durangaldeko Berbalagun taldearen koordinatzaileak dioenez, taldeko zenbait kideren "afizioa" egitasmo bihurtu dute. "Bernalagun taldeko kideetarik bat Durangoko Alpino mendi taldean sartuta dabil. Ikusi genuen bernalagun askoren zaletasuna zela mendia. Daukagun inguru pribilegiatua baliatuta, eskualdea hobeto ezagutzeko, mendi irteerak egiteko, eta euskara praktikatzeko aukera ematen du Mendilagunek", esan du Anakabek.



Iurretako, Garaiko eta Berrizko inguruetan ibiltzeaz gainera, Abadiñoko Gerediaga auzoa ere bisitatu zuten.

Datozen irteerak

Urtarrilerako, beste deialdi bat prestatu dute. Urtarrilaren 25ean izango da. Urkiolatik hasi eta Otxandiorainoko bidea egingo dute. Irteera ordua 10:00etan izango da eta autobusean egingo dute Urkiolarako joan-etorria. Otsailaren 8an beste irteera bat egingo dute. Tabiratik hasi, Okarantza auzora pasatu eta Abadiñoko

Mendiola, Larringan eta Sagasta inguruak igaroko dituzte. Azkenik, Atxondora ailegatu dira, Axpera. Axpetik hasierara itzultzeko bidaia autobusean egingo dute. Txangoa 10:00etan hasiko da.

Deialdi guztietan alde aurretik izena ematea ezinbestekoa dela azaldu dute antolatzaileek, eta, horretarako, telefono bat ipini dute eskura: 639 400 786.

Elorri eta Berriz

Antolatzaileek adierazi dutenez, deialdien zerrenda luzatzen joango da. Oraingo ez dute daturik zehaztu, baina, aurreratu dutenez, Elorrio inguruan izango da beste irteeratariko bat. Gainera, bertako Erdella mendi taldearen laguntza izango dute horretarako. Berriz aldean ere beste txango bat egitea pentsatzen dabilzala ere aurreratu dute.

Berrizko elkartasun tonbolak 1.350 sari inguru banatuko ditu asteburuan

BERRIZ • EKAITZ HERRERA

Asteburu honetan, elkartasun tonbola egingo dute Berrizen txirotuak izan diren herrialdeei laguntzeko. Herritarrek dohaintzan eramandako produktuak eskuratu ahal izango dira bertan. Barikuan, zapatuan eta domekan egongo da zabalik tonbola, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era bitartean. Arkaratz kalean ipiniko dute. Tonbolako txartel bakoitzak euro bat balioko du.

'Munduan Berbena' ikuskizuna abenduaren 26an, Apatako frontoian

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Marixurrike Aisialdi Taldeak, Andasto Dantza Taldeak, Atxondoko Ikasleen Guraso Elkartek eta udalak *Munduan Berbena* ikuskizuna antolatu dute abenduaren 26rako. Munduko jolas, kanta eta dantzak ardatz dituen ikuskizunaren helburua gaztetxoak ikuskizunaren parte izatea eta eurekin batera disfrutatzea da.

Ikuskizuna Apatamonasterioko frontoian izango da eta 11:30ean hasiko da.

Jose Antonio Agirre parkean dagoen haurrentzako gunea estaltzeko lanak hasi dituzte Zaldibarren

Aurrekontuetako 83.472 eurogaz zurezko egitura bat ipiniko dute eta hoditeria berria ere sartuko dute



Orain arte estali barik egon da Jose Antonio Agirre parkean dagoen umeen jolasgunea.

ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO

Aste honetan hasi dira Jose Antonio Agirre parkean dagoen haurrentzako gunea estaltzen, eta lanak Gabonak aurretik amaitzea itxaroten du udalak, ohar batean jakinarazi duenez. Zurezko egitura bat ipini, eta kristalagaz itxiko dute. Horrez gainera, hoditeria berria ere sartuko dute, argiteriarako eta euri-uretarako. Proiektu honek 83.472 euroko aurrekontua du eta Bizkaiko Aldunditik 37.491 euroko laguntza jaso dute.

Horrela, aurreko legegintzalditik datorren proiektua gauzatuko du udalak. "Herritarren eskaera bat izan zen. Beharrezkoa da joko hauek lehenbailehen estaltzea, Zaldibarren ez daukagu-eta espazio estalirik", azaldu du Jose Luis Maiztegi Zaldibarko alkateak.

Izurtzan 20.000 euro gorde dituzte kanposantuko txabola botatzeko

IZURTZA • J.D.

2020ra begirako hainbat inbertsio aurreikusi dituzte aurrekontuetan, eta eurretari-ko bat kanposantuko txabola botatzekoa da. Udalak 20.000 euro bideratuko ditu zeregin horretara. Orain urte asko forentseak erabiltzen zuen txabolak ez du erabilpenik gaur egun, eta "zaharkituta eta txarto" dago, Lorea Muñoz Izurtzako alkatearen esanetan. Horregatik erabaki dute botatzea. Txabola zegoen tokian libre geratzen den espazio hori oinezkoentzat egokitzea aurreikusten dute.

Aurrekontuetako beste 40.000 euro Herri Antolamendurako Plan Orokorra lantzen jarraitzeko erabiliko dituzte.

“Herritarren presiorik barik, ez zen atzera botako telefonia antena ipintzeko asmoa”

San Pedro ermitaren ondoan 40 bat metroko antena ipintzeko asmoa zegoela jakitean, herritarrak batzen hasi ziren



Unai Orbe, Pilar Silva, Leixuri Solozabal, Ianire Matias eta Estitxu Imaz.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Orange konpainiak San Pedro ermitaren inguruan telefonia antena bat ipintzeko asmoa zuela jakitean, hainbat herritar, kezkatuta, mugitzen hasi zen. Informazioa batu zuten eta herritarrak informatu zituzten. Azkenean, ez da antenarik eraikiko, udalak atzera bota duelako baime-

na. Unai Orberen, Pilar Silvaren, Leixuri Solozabalen, Ianire Matiasen eta Estitxu Imazen ustez, herritarren presioa funtsezkoa izan da erabaki horretan.

Noiz jakin zenuten antena ipintzeko asmoaren berri?

Estitxu Imaz: Herri batzar batean, al-

kateak antena bat ipiniko zutela aipatu zuen. Bizilagun batek galdetu zion zer antena mota zen eta zelako kalteak eragin zitzakeen. Alkateak eta zinegotziak antena defendatu zuten, eta informazio gehiago gura bazuen, udaletxean eskaria egiteko esan zion. Gero jakin genuen antenak 40 bat metro zituela.

Leixuri Solozabal: Garrantzitsua da aipatzea informazio hori eman zutenarako dena prest zutela obrekin hasteko.

Unai Orbe: Eta lizentzia emanda zegoen.

E.I.: Kezkatuta irten ginen batzarretik. Interneten informazioa bilatu genuen. Zenbat eta gehiago ikertu, kezka orduan eta handiagoa zen.

L.S.: Ondoren, auzotarrak informatu genituen eta baita eskolako umeen gurasoak ere, antena eskolatik gertu egongo zelako.

E.I.: Gehienek erantzuna beldurra, kezka eta ezjakintasuna izan zen.

Egoera horren aurrean, zer egin zenuten?

E.I.: 19 sinaduragaz, azaroaren 22an informazio eskaera bat egin genuen udaletxean, datu gehiago jakiteko: kokapen zehatza, dorrearen ezaugarriak... Egun batzuk geroago konturatu ginen antenaren oinarria ipintzeko obrak hasita zeudela.

E.I.: Kezka areagotu egin zen. Aben-

duaren 2an herri batzar batera deitu genuen eta 50 bat lagun batu ziren. Bildutako informazioa eskaini genuen. Esaterako, Osasunaren Mundu Erakundeak uhin elektromagnetikoak minbiziaren ustezko eragile moduan izendatuta dituela 2011tik hona. Hurrengo egunetan, Alberto Arrate abokatuagaz ere batu ginen. Aditua da gai hauetan. Ondoren, abenduaren 10ean, herri batzarra egin genuen, udalak deituta, eta orduan, akats bat egin zutela esan zuen alkateak.

Uste duzue herritarrak mugitu izanak baduela eraginik erabakian?

E.I./U.O./L.S./P.S./I.M.: Bai, zalantzarik barik.

U.O.: Herritarren presiorik barik, ez zen atzera botako telefonia antena ipintzeko erabakia.

E.I.: Batzar hartan batutako herritarrek ordenantza garantista bat lantzeko eskatu zioten alkateari, bizilagunak eta euren osasuna babesten dituen ordenantza bat.

U.O.: Ordenantza egitea ez da alkatearen ideia. Herritarrena izan da.

Zerbait gehitu gura duzue?

U.O.: Kontua ez da antenak inon ez ipintzea. Antenak toki eta modu egokian ipintzea gura dugu, inor bizi ez den inguruan, esaterako. Udalak hasieratik informazio guztia eskaini izan balie herritarrei, hau guztia ekidin zitekeela uste dugu.

Igor Agirre alkateak "barkamena" eskatu du eta udalak ordenantza bat landuko du antenen inguruan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Igor Agirre alkateak autokritika egin eta udaleko agintari nagusi moduan "akatsa" onartu eta "barkamena" eskatu du. Azaldu

duenez, Orange enpresak San Pedro ermita ondoan antena bat sartzeko eskaera egin zuen irailean. "Arkitektoak egoera aztertu, eta gune horretan azpiegitura hori

ipini zitekeela esan zigun", gogoratu du. Beraz, antena ipintzeko baimena eman zuen. Azaroaren 13an, herri batzar batean, antenaren gaia mahaigaineratu zuten. Herritarren kezka ikusita, beste batzar batera deitu zuen, abendu hasierarako, xehetasun denak emateko. Batzar horren aurretik, arkitektoagaz eta abokatuagaz batu zen. "Orduan konturatu ginen txarto emandako baimena

zela. Plan orokor berria partzialki onartuta dago, baina oraindino ez dago publikatuta, eta, beraz, ez dago indarrean. Beraz, indarrean dagoen arautegia hartu behar da kontuan. Araudi horren arabera, antena toki hartan ipintzea ez da legezkoa", azaldu du. Horiek horrela, herri batzarrean antena ilegala zela onartu eta "barkamena" eskatu zuen. "Gure akats handi bat izan da", gehitu du. Joan zen

barikuko plenoan, EAJk eta EH Bilduk baimena atzera botatzea onartu zuten, aho batez.

Pleno berean beste erabaki bat ere hartu zuten: antenen inguruko ordenantza bat lantzen hastea, etorkizunean zer antena mota, non eta zein baldintzatan ipini daitekeen zehaztuko duena. Horretarako, gaian aditua den Alberto Arrate abokatuaren laguntza izango dute.



Ezagutu gaitzazu gertutik!

Ate irekiak
urtarrilaren 8,11,13,18



LAUAXETA IKASTOLA

+info:
www.lauaxeta.eus



Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Optometria
PSE: 162/13

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena • Ikusmenaren entrenamendua • Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena • Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhua Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA
HORTZ-ESKANERRA

{Muruetatorre, 2C blokea, behea} DURANGO
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Mañariko adinekoen bizimodua hobetzeko 86 neurri jaso dituzte diagnostikoan, eta lehentasunak markatzea da hurrengo pausoa

Besteak beste, auzoak herriguneagaz eta Durangogaz lotzeko baliabide gehiago eskatu dituzte adinekoek

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Iaztik hona, diagnostiko bat egin dute Mañarian, adinekoen beharrianak zeintzuk diren jakin eta euren bizimodua zelan hobetu daitekeen erabakitzeko. Adinekoek eurek eta askotariko eragileek emandako informazioagaz, txosten bat egin zuten, eta joan zen barikuan aurkeztu zuten herritarren aurrean. Atalik atal, nagusien bizimodua hobetzeko 86 neurri jasotzen ditu txostenak.

Hurrengo urratsa neurri horiek guztiak lehentasunen arabera sailkatzea izango da. 2020ko otsailetik apirilera bitartean burutu gura dute prozesu hori, adinekoekin laubost saio parte-hartzaile eginda. 2020ko inbertsioen ataleko 30.000 euro zertan inbertitu erabakiko dute prozesu horretan. "Ekintza plan errealista bat diseinatzea da helburua", azaldu du Ainara Otxotorena alkateak.

Herri batzarrean aurkeztutako txostenak atalik atal jasotzen ditu herriko nagusien beharrianak.

Euretariko hainbat garraioari lotutakoak dira. Izan ere, Mañariko biztanleen zati handi bat landa eremuan bizi da, baita adinekoen kasuan ere. Txostenak jasotzen duenez, Mañariko biztanleen %19,46 65 urtetik gorakoak dira eta eurentatik %46 landa eremuan bizi dira. "Auzoetatik irteera kostatzen da, nork eraman ez badaukazu", dago jasota *Garraioa* atalean, esaterako. Horregaz batera, adinekoek autobus eta aparkatzeko toki gehiago eskatzen dituzte atal berean. Bestalde, auto askok herriguneko semaforoa sarritan gorri dagoela igarotzen dutela ohartarazten dute eta, oro har, arinegi ibiltzen direla herri barruan.

Gizarte eta osasun zerbitzuei dagokienez, Mañariko mediku eta erizainak askotan aldatzen direla eta medikuen eta pazienteen arteko "konfiantza sortzea kostatzen da" egiten dela diote nagusiek. Analisiak egitera, Iurretarraino joan behar dutela ere aipatu dute. Atal berean, zahartzaia etxean eman ahal izateko



Joan zen asteko barikuan Mañariko liburutegi zaharrean egindako herri aurkezpeneko irudia.

Beharrianen zerrenda hartu eta lehentasunak markatuko dituzte otsailetik aurrera

erraztasunak eskatu dituzte. "Ahalik eta denborarik gehien etxean igaro ahal izateko, laguntzaile bat kontratatzea beharrezkoa izaten da askotan. Hobeto beloratzen da hori, erresidentziara joatea baino", jasotzen du atal horretako puntu batek. Bestalde, arlo horretan indarrean

dauden zerbitzuak ez dituztela ondo ezagutzen eta euren gaineko informazioa helarazteko beharrian nabarmentzen dute.

Etxebizitzaren, herriko eraikinen eta aire zabaleko espazioen ingurukoak dira txostenean jasotako beste beharrianetariko batzuk.

Martxan dauden proiektuak amaitzeak izango du lehentasuna Otxandioko aurrekontuetan

Plazako obra amaitzea eta gimnasioko bigarren fasea gauzatzea dira 2020ko inbertsiorik nagusienetarikoak



Egoitz Garmendia joan zen asteko udalbatzarrean, aurrekontuetako xehetasunak azaltzen.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

2020ko aurrekontuak onartu dituzte Otxandion, 2.116.208 euroko zenbatekoagaz. Inbertsioetako diru atalik handienak martxan dauden proiektuak amaitzera bideratuko dituzte. Horrela, proiektu horiek gauzatuta, hurrengo hamarkadara begirako fase berri bat hasi gura dute udalean. Herritarrekin prozesu parte-hartzaile bat eginda, lehentasunak markatzea eta ekintza plan bat diseinatzea da asmoa.

Aurrekontuetako 98.000 euro plazako lanak amaitzera bideratu dituzte. Orain urte batzuk, udal txek pareko zatia eraberritu zuten, eta orain frontoi aldeko gunea konponduko dute. Baina obra hori gauzatu aurretik, arkeologia indusketak egiten ari dira, lurpean egon

daitezkeen aztarnak dokumentatzeko. Prozesu horren ondoren eraberrituko dute plaza.

Mainondoko gimnasioaren bigarren fasea gauzatzeko, 101.000 euroko diru atala sortu dute aurrekontuetan. Gimnasioa aurten ipini

2020rako 100.320 euro gorde dituzte, Andaparaluzetan autobus gurekua eta espaloia egiteko

dute martxan, gela bateagaz. Datorren urtera begira, beste gela bat atontzea eta ekipatzea da asmoa.

Bestalde, 100.320 euro gorde dituzte Andaparaluzeta auzoan auto-

bus gurekua eta espaloia egiteko gasolindegiraino.

EH Bilduren botoekin

Aurrekontuak Gobernu Taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin onartu zituzten, joan zen astean. EAJ abstentitu egin zen. Aurrekontu proposamena berandu jaso eta eurak aztertzeke "denbora gutxi" izan dutela azaldu zuen Endika Garate jeltzaleak. Horregatik abstentitu ziren. Egoitz Garmendia alkatearentzat eta bere taldearentzat lehenengo aurrekontuak izan dira. Aurrekontuak lantzen "buru-belarri" zentratuta aritu direla azaldu, eta proposamena berandu helarazi zutelako onartu zuen. "Datorren urtean proposamena lehenago partekatzeke konpromisoa hartzen dugu", azaldu zuen.

Arrike
Liburutegia

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Ibai Ondo
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10 • 946 824 489 • BERRIZ
ferreteriaibaiondo@gmail.com

Bizkarra
Jatetxea
URKIOLA auzoa, 4-6
Tel.: 94 681 20 26
689 80 29 37

Gabonetan janaria prestatzeko astirik ez? Guk lagunduko dizugu
Ettxera eramateko janaria, betikoa, etxeokoren modukoa

GABON GAUERAKO 2019ko abenduaren 21a baino lehenago	GABON ZAHARRETARAKO 2019ko abenduaren 28a baino lehenago	ERREGE EGUNERAKO 2020ko urtarrilaren 3a baino lehenago
---	--	--



Durangoko Ibilaldiko ekitaldi nagusian, lekuko aldaketaren unea. IBAN GORRITI.

Hareek denporak!**IBILALDIA DURANGOTIK ELORRIORAKO BIDEAN**

Durangoko Kurutziaga eta Ibaizabal ikastoletako zuzendariak Ibilaldiko lekukoa Elorrioko Txintxirri ikastolari eman ziotenekoa da argazkia. Orain 14 urte izan zen Durangoko bigarren Ibilaldia, 2005ean.

Kurutziagako eta Ibaizabalgo arduradunak pozik agertu ziren Bizkaiko Ikastolen aldeko jai egunak izan zuen arrakastagaz. Denera, 120.000 lagunek parte hartu zuten maiatzaren 29an. Egunean bertan, 1.400 lagun

aritu ziren lanean, eta egunaren aurrelanketan beste 300.

Bizkaiko Ikastolen jaiaren hurrengo edizioa gertu izan zen. Elorrioko Txintxirrik hartu zuen 2006ko edizioa, hain zuen ere. Orduko Ibaizabalgo zuzendari Idurre Maortuak "patxadaz hartu zezaten" gomendatu zien Ibilaldiko langileei, eta "ilusioa mantendu zezatela".

2020a ere urte berezia izango da Txintxirri ikastolarentzat, Ibilaldia antolatuko dute eta. **I.G.**

Durungaldea asteen**Elorrion Sahararen aldeko janari bilketa egingo dute abenduaren 21etik 31ra**

Elorrio | Elorrioko Lajwad elkarteak Sahararen aldeko elkartasun karabana antolatu du. Elikagaiak eskola publikoan, Txintxirri Ikastolan, Lajwaden elkartearen, Lourdes Ikastetxean eta Elorrioko Eroskin bilduko dituzte, abenduaren 21etik 31ra bitartean.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, besteak beste, arroza, pasta, lekaleak, azukrea, latak eta konpresak jasoko dituzte.

Durangoko ile-apaintzaileek ilea moztuko dute minbiziaren aurkako ekimenean

Durango | Herriko hainbat ile-apaintzailek ilea mozteko zerbitzua eskainiko dute domeka honetan, borondatezko prezio baten truke (10 euro) etxean ospitaleratuta dauden umeen psiko-onkologia zerbitzua mantendu dadin. Egitasmoa hilaren 22an izango da, Durangoko Andra Marian. 10:30etik 14:30era egongo dira ile-apaintzaileak bertan.

**Dendak Bai elkarteak 1.200 gonbidapen banatuko ditu izotz pistarako**

Durango | Durangoko Dendak Bai elkarteak egitarau berezia antolatu du Gabonetarako. Horren barruan, abenduaren 20tik 23ra bitartean izotz pistarako 1.200 gonbidapen banatuko dituztela jakinarazi dute. Gonbidapenak honako irizpideen arabera banatuko dituzte: sarrera bat 20 eurotik gorako erosketetarako, sarrera bi 40 eurotik gorakoetarako eta hiru 60 eurotik gorakoetarako.

**Business Network International Koopera Durangok 9 milioi euro fakturatu ditu bost urteko ibilbidean**

Durango | 'Eman jasotzeko' filosofia duen BNI Koopera Durangok 9 milioi euro fakturatu ditu ia bost urteko ibilbidean. 30 enpresak osatzen dute BNI Koopera Durango, jarduera eta tamaina desberdineko 30

taldek. Taldeko kideek adierazi dutenez, helburu bakar batek bateratzen ditu: elkarri lagunduz enpresak garatzeak.

Lan egiteko moduari dago-kionez, kideetarikoa batek bi-tartekari lanak egiten ditu, eta

konfiantzazkoa duen hirugarren baten erreferentzia ematen dio besteari; betiere, hirugarren horren oniritziagaz. Taldea as-tero batzen da, Gran Hotelan, eta interesa duenak 630 963 966 telefono zenbakira dei dezake.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Gremioen gida

anboto

Elektrizitatea

MARKIEGI

ARGIZTATZEN JARRAITZEN DUGU!

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com

Zurgintza

leike

aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY

ITURGINTZA BEROGINTZA GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide

iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA

iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubiola 10 B Industrialedea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 852 779

Zurgintza

ATERPE AROZTEA

EGUR ERAIKUNTZAK TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Eraikuntza eta birgaikuntza

ARRETXE GESTION

ERAIKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZA

TXALETAK - TXOKOLAK
FATKADAK - BASERRIAK
ETXEBIZITZAK - TEILATUAK
NABEAK - ERAISBETAK
INPERMEABILIZAZIOA
MAR.MOLGINTZA - HARGINTZA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM
INFO@ARRETXEGESTION.COM
658 120 215 ZORROTZA / BIZKAIA

Profesionalik onenak zure zerbitzura!




PLAZAN BAZAN

12

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiturri)

Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen erantzunekin
batera beste
hainbat jolas aurkituko dituzu.



Ikusten al
dituzu bi
irudien arteko
aldeak? Hamar
dira guztira.

Hamarrekoa



?

Zenbat
katilu
ikusten
dituzu?



Zazpi irudi-zati hauetatik 4 engainariak dira. Alegia, ez
daude beheko irudi nagusitik hartuta. Zeintzuk dira?



Irudi engainariak

HAU DENA
ERE OPARITU
DIDATE...





HAN eta HEMEN

Begiratu ongi bi irudi hauei. Badira zortzi gauza bi eszenetan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



Itzala

Zein da
korrika ihesi
doan horren
itzal zuzena?

.....



‘Etixerik txikiena’

ANTZERKIA

BERRIZ :: Abenduak 20

Haur errefuxiatuek bizi duten egoera taula gainera ekarrita

Haur errefuxiatuek, nora doazen jakin barik, euren jaioteritik joan beharra dutenean bizi duten ezbaia jorratzen du *Etixerik txikiena* antzezlanak. Dese-

rotzean sakontzen du Yarleku Teatrok Berrizen taularatu-ko duen obrak, eta momentu latzetan harreman pertsonalek duten garrantzian ere bai. Kultur etxean egongo da, gaur, 18:15ean.

Abenduko agenda



21

IURRETAKO UDALA DENDAK BAI ELKARTEA TXU-TXU TRENA

11:30 - 13:30 / 16:00 - 20:00 Correoseko geltokian, sarrera doan

23

ABENDUKO LAGUNAK

10:00 Irteera: Aita San Migel plazan

Abenduko koplak etxerik etxe

IURRETAKO UDALA DENDAK BAI ELKARTEA TXU-TXU TRENA

11:30 - 13:30 / 16:00 - 20:00 Correoseko geltokian, sarrera doan

24

IURRETAKO UDALA ANDEREBIDE ELKARTEA. OLENTZERORI ETA MARI DOMINGIRI HARRERA

Askondon

11:30 Olentzerori eta Mari Domingiri itxaroten, Aita San Migel plazan; ondoren, kalejira Askondoraino trikitilariekin.

12:30 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera, Elkartasun azokaren otzararen zozketa eta gutun-postal eta erakusleihoen lehiaketaren sari ematea. Amaitzean, ume guztiak elkarregaz daudela, familia argazkia aterako da. ZATOZ BASERRITAR JANTZITA!

26

“HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA”

Ibarretxe kultur etxean

12:00 ‘Yogipuinak II’ Maite Arrese (5 urtetik gorakoak, heldu bategaz lagunduta). Sarrera gonbidapenagaz.

Abenduaren 20an

ABADIÑO antzerkia
‘Lara Larika’ (Zirika Zirkus), 17:30ean, Errota kultur etxean. (1etik 5 urtera bitartekoentzat).

ELORRIO antzerkia
‘Julietas, Romeo circo’ (Markeliñe), 20:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak
Helduentzako ipuin kontalaria: ‘Harriek kontatuko didatena’ (Ane Gebara), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Abenduaren 21ean

ATXONDO afaria
Neguari ondoetorria emateko afaria, 20:00etan, Arrazolako Amillena bentan. Izena emateko: 94627 89 07/ amillenaarrazola@gmail.com.

BERRIZ ipuinak
Ipuin Txokoa: ‘Olentzero kuttun’ (Miru), 12:15ean, Kultur Etxean.

BERRIZ musika
Pinpilinpussies, 22:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA antzerkia
‘Ghero, azken euskalduna’ (Tartean Teatro), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Abenduaren 22an

DURANGO antzerkia
‘Pinocchio’ (Gorakada antzerki taldea), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO dantza
Dantzadantza, 18:30etik 20:30era, Landako I. Kiroldagian. Udaleko Adinekoen Sailak antolatuta.

Abenduaren 26an

IURRETA ipuinak
Ipuin kontaketa: ‘Yogipuinak II’ (Maite Arrese), 12:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Bost urtetik gorako haurrentzat, heldu batek lagunduta.

Abenduaren 27an

ELORRIO musika
Sega Sound Killers, 22:30ean, Ateneon.

Abenduaren 28an

ELORRIO antzerkia
‘Escúpido Amor’ Aitziber Izquierdo), 19:30ean, Arriola antzokian.

Abenduaren 27tik 30era

DURANGO zirkua
‘Maluta’ Durangoko Gabonetako Zirkua, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Urtarrilaren 3ra arte

ELORRIO erakusketa
‘Garai bateko argazkiak’, Iturri kultur etxean. Elorrioko Argazki Taldeak antolatuta, 30. urteurrena dela-eta.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zine-

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Intemperie**
barikua 20: 22:00
domeka 22: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Star Wars: El ascenso de Skywalker**
barikua 20: 19:00/21:00/22:00
zapatua 21: 16:30/19:30/21:30/22:30
domeka 22: 17:00/20:15/21:00
astelehena 23: 19:00/20:30
eguaztena 25: 20:00/21:30

• **Dios mío ¿pero qué te hemos hecho ahora?**
barikua 20: 19:00/22:00
zapatua 21: 19:30/22:30
domeka 22: 19:00/21:00
astelehena 23: 18:30/20:30
eguaztena 25: 20:00/21:30

• **Jumanji: siguiente nivel**
zapatua 21: 17:00
domeka 22: 16:30

• **Frozen 2**
zapatua 21: 17:00
domeka 22: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **Sorry we missed you**
zapatua 21: 22:00
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:00
eguaztena 25: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Asterix: edabe magikoaren sekretua**
zapatua 22: 17:00

• **Dantza**
zapatua 22: 20:00

Gabon giroa

EGITARAUAK DURANGALDEA ::

Durangaldea gabon giroan sartuta dago, Olentzerori eta Mari Domingiri ondoetorria emateko prest. Askotariko ekitaldiak batzen dituzten egitarauak batu ditu ANBOTOk www.anboto.org webgunean.





IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Urduritasun handiagoa dugu oholtzan sentimenduak kudeatzeagatik, oholtzako ikuspegiagatik baino”

Iheskide talde elorriarrak berriro astinduko ditu instrumentuak oholtza gainean. Abenduaren 28an izango da hori, Hatortxu Rock elkartasun jaialdiaren barruan



Gorka Jareño ‘Tronpi’
Elorrio | 1983
Jonatan Gonzalez ‘Kata’
Elorrio | 1984
Ibai Arrizabalaga ‘Ibaiko’
Abadiño | 1992
Xabier Gallastegi ‘Xagu’
Elorrio | 1984
Iheskide musika taldeko kideak

Abenduaren 28an Hatortxu Rock elkartasun jaialdian parte hartuko dute, beste talde eta artista askogaz batera.

ELORRIO • IGOR GALARZA

2016ko otsailean, Iheskide musika taldeak etenaldia iragarri zuen. Ia lau urte geroago, ‘Tronpi’, ‘Ibaiko’, ‘Xagu’ eta ‘Kata’ oholtzara igoko dira berriro, Hatortxu Rock musika jaialdian, abenduaren 28an.

Zer dela-eta itzulera? Zer gertatu da?

Gertatu, ezer ere ez! [barreak] Par- taide bakoitzaren hutsuneak baliatu, eta taldearen oinarrietara itzultzea erabaki genuen, elkarregaz jesartzea. Harremanak lehenetsi genituen, Iheskide beti izan den moduan, eta, horren eraginez, egun batean berriro elkartu ginen lokalean, eta instrumentuak astindu genituen apur bat.

Noiz hasi zineten berriro batzen?

Ez da urtebete, martxo aldera. Orduan hasi ginen elkartzen, besterik barik, gure artean egotearren. Gure harremanaren parte da. Lokaleria joatea pentsatu genuen, eta etortzen hasi ginenean...

...Hatortxu Rock-en eskaintza.

Hatortxu Rock-etik deitu zigutenean harra hazi zitzaigun. Mahai baten bueltan jesarri ginen laurok. Berba egiten hasi, eskaintza baloratu, eta “bueno, kontzertu bakararra da”, pentsatu genuen. Uste dugu aukera hori ere merezi dugula. Azken batean, denok dugu pentsaera berdintsua, eta taldea bat-batean uztea inorentzat ez zen izan kontu erraza. Uste dugu gure buruagaz zorretan geratu ginela. Gure buruari eta publikoari kontzertu polit bat egitea zor diegu. Hatortxu Rock-en ipini genuen mugarrria.

Zer sentitu zenuten Hatortxu Rock-en deia jaso zenutenean?

Haisieran ez genuen pentsatu kontzerturik eskaintzerik. Elkarregaz dugun hartu-emanen berriro sendotzen hasi ginen. Lokaleria etorri ginen pare bat egunetan, eta ezaguen haritik Hatortxu Rock antolatzen dutenek bazekiten elkartzen hasita geundela, eta eskaintza bota ziguten.

Zertan aritu zarete lau urteko etenaldi honetan?

‘Ibaikok’ eta ‘Xaguk’ Bultz taldea sortu zuten. ‘Tronpi’ lanean hasi zen, eta bigarren haur bat ere izan zuen; hasieran musikatik aldentuta aritu zen, baina, gero, berriro hasi zen baxua hartzen, eta musika jaialdiren batean edo bestean “oker-

“**Ahal izan dugunetan batu gara, gogoa eta astia izan ditugunean. Malgu aritu behar gara**”

keriak” egin izan ditu. ‘Kata’ ere ez da alendu musika mundutik.

Kontzertuak bizitzako beste sasoi batean harrapatu zaituztela-eta, erraza da laurok elkartzea?

Denok batera entseatzeko ez dugu erraz. Gurasoak gara, bakoitzak

bere bizimodua du. Ahal izan dugunetan batu gara, gogoa eta astia izan ditugunean. Malgu aritu behar gara, bata egun batean ezin duela, besteak aste bitartean... Hala ere, taldearentzat ona izan daiteke, dinamika desberdinak ditugulako. Lehen, martitzen eta egunetan batzen ginen; mezara joatearen antzekoa zen ia. Orain ez da horrela. Batzuetan, lautik hiru elkartzen gara, eta etxean edo kalean elkartzen garenean landu behar.

Batak bestearean sentsazioak eza- gutzeko gai zarete?

Bai, ia beti egon gara elkarregaz. Taldea sortu aurretik ere ibili ginen, nahiz eta gero ‘Ibaiko’ sartu. Lehenengo, gure arteko harremana izan zen. Gure lagunartea musikaren aurrekoa da.

Abenduaren 28an eszenatokira igo, eta zer itxaroten duzue?

Ez dugu parafernalia berezirik egingo [barreak]. Seguru hamaika emozio desberdin izango ditugula: urduritasuna, emozioa, ernegua...

Denetik sentituko dugu oholtza gainean publikoaren aurrean. Haiekin batera oldarraldi bat sortu gura dugu, hori izango litzateke politena.

Eta han, ordubetea dena ematera.

Hamabost abestiko zerrenda bat prestatu genuen, baina ohartu ginen ezinezkoa dela. Gainera, gero hasi ginen pentsatzen “hau sartu behar dugu, eta beste hau ere bai”, eta zaila zerrenda bat egitea, baina tira. Ahal bezain azkar jo beharko dugu, izan ere ez ditugu abestiak

“**Hatortxu Rock antolatzen dutenek bazekiten elkartzen hasita geundela, eta eskaintza bota ziguten**”

jotzen soilik, aldarrikapen mezuak era oihukatzen ditugu. Urduritasun handiagoa dugu sentimenduak kudeatzeagatik, Hatortxu Rock-eko oholtza gainetik izango dugun ikuspegiagatik baino. Publikoaren aurreikuspena bete gura dugu, eta konexioa badago, ondo baino hobeto!


Etenalditik hona, nabaritu duzue publikoaren berotasuna?

Nabaritu dugu, bai. Sare sozialetan gu aktibo aritu ez arren, idatzi izan digute itzultzeko eskatzen eta abar. Kontzertuak jotzeko eskariak izan ditugu, asko etorri zaizkigu bueltatzeko eskatzen... berotasuna sentitu dugu, bai. Agian publikoaren hutsune bat geratu da eskal taldeek utzi izan duten heinean. Agian hutsune bat utzi genuen, zerbait berezia eskaintzen genuelako. Beharbada gure musikak dituen aldarriekin konexioa sentitu izan dute, eta, hala bada, pozgarria da, horrek mugiarazten gaituelako gu, eta motibazio handia da taldearentzat.

Eta kontzertua amaitzean, zer gertatuko da?

Kontzertua amaitzean, festara! Ez dakigu. Kontzertua buru-belarri prestatzen gabilta, eta ez dugu ezer pentsatu kontzertu honetatik harago. Berba egingo dugu, ea bakoitzak zer esperantza duen, zer sentsazio, talde aldetik zein alde pertsonaletik. Eskaintza asko egin dizkigute jada, eta asko eskertzen dugu, animatu egiten gaituelako. Eta, zorionez, denek ulertu dute zein den gure egoera. Oraingoz, Hatortxu Rock-i begira gaude; hortik aurrera, berba egingo dugu.

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Alex De Pedro argazkilari zornotzarra 2020ko munduko argazkirik onenen arteko txapelketan lehiatzeko sailkatu da

Zornotzarraren argazkia mundu osoko beste 700 argazkigaz batera lehiatuko da. Kanporaketak urtarilean hasiko dira

ARGAZKILARITZA • EKAITZ HERRERA

Mundu osoko 43 herrialdeetako 700 argazkiren artean, zornotzar baten izena ageri da: Alex De Pedro argazkilaria. 2020ko World Photographic Cup delako txapelketan sailkatu da; hau da, 2020ko Munduko Argazkien Txapelketan. Argazkilaririk onenen pare dago, eta onenekin lehiatuko da urtea hasteagaz batera. "Telefonoz eman zidaten albistea", dio De Pedrok. "Aizu, nominatuta zaudel", esan zidaten. Benetan pozik hartu nuen berria. Zure lana, azken finean gustuko duzun hori ere badena, baloratzen dela ikustea eta zure inguruko jendeagaz partekatzea itzela da", azaldu du argazkilari zornotzarrak. "Ez dut ezer irabazi, baina onenen artean egotea sari handia da dagoneko", gaineratu du.

Txapelketan parte hartzen duen herrialde bakoitzak bere hautagaitza propioa aurkeztu ohi du lehiaketara. De Pedro espainiar estatuko taldeagaz lehiatuko da, hango beste

hamalau argazkilarigaz batera. Iaz Australiak irabazi zuen lehiaketa, eta aurten, haiekin batera, Ameriketako Estatu Batuak eta Mexiko daude faboritoen artean.

"Aita ere lehiatutakoa da txapelketan. 2017an, 10 onenen artean geratu zen"

Bizikleta baten argazkia

Txapelketan hainbat kategoria daude. Natura, Erreportaje grafiko, Ezkontza, Arte ilustratiboa, Erretratua eta Komertziala dira horietariko batzuk. Azken kategoria horretan lehiatuko da De Pedro, eta bizikleta baten kate-sistema agertuko du bere argazkiak. "Bizikletak eskuz egiten dituen pertsona bat ezagutzen dut, eta sarri egin izan dizkiot argazkiak", azaldu du.



Alex De Pedro argazkilari, eskuan munduko lehiaketara aurkeztuko duen argazkia duela.

Familiako ohitura

Alex De Pedrori etxetik datorkio argazkilaritzarako joera. Irudia aukeratu, fokatu eta klikatzeko har hori Jesus De Pedro aitak sartu zion txikitan, eta irakatsi zionak fruitua eman du. "Aita ere lehiatu da noizbait Munduko Argazkien Txapelketan. 2017an lehiatu zen, eta mundu osoko hamar onenen artean sailkatu zen", adierazi du.

Finala, Erroman

Urtarrilean, kategoria bakoitzeko hamar argazkirik onenak zeintzuk diren jakinaraziko dute. De Pedrok lehendabiziko langa hori gaintitza lortuko balu, Erroman (Italia) izango luke hurrengo hitzordua. Bertan egingo dute gala nagusia eta bertan jakinaraziko dituzte irabazleak.

Gai librea

Ihntza
Orbegozo Igartua
Plateruena




Kultura lana da

Hala du izena zoritxarrez Durangoko Azokan bertaratzerik izan ez baina zorionez sareetan ikusteko aukera izan dudan mahai-inguruak. Ertz ugari jorratzen dituzte, baina izenburuak berak soilik zer pentsatua ematen du.

Eztabaida asko sortu izan dute kulturaren profesionalizazioaren ingurukoek, eta egia da horretan dihardutenen aldetik ulertzeko moduz ezberdinak daudela, batzuek zaletasunetik sortu edo ekoizten dute, besteak beste, baina beste askok, zaletasuna izateaz gain, profesional gisara ari dira, pasioa ez ezik ogibidea ere izanez. Arazoa da hartzaile eta antolatzaile askok kultura baldintza profesionaletan jaso nahi dutela, profesionalki baloratu gabe. Zenbat bertso-larik jaso ote dute ezkontza batean abesteko eskaria, zenbat idazlek testu bereziren bat sortzekoa, zenbat musikari eta teknikarik kontzertu bat egitekoa, zenbat ilustratzailek ipuin baterako irudiak marraztekoa... guztiak musutruk, kultur arloko lanak, aisialdiari lotuak izanik, ofizio izango ez balira bezala; geuk goza dezagun, langile hauek ikasketarik, lanordurik eta buruko minik izango ez balute bezala. Orain gogoan ez dudan musikari batek horrelakoetan beti gauza bera erantzuten omen zuen, "argindarra, edaria, muntaia etabarrak musutruk lortzen dituzuenean, nik ere musutruk emango dut kontzertua, baina beste guztiek kobratzen duten bitartean ez eskatu niri debalde lan egin dezadan". Kulturaren ere, lanagatik kobratzen ez bada langileak berak hala erabaki duelako izan behar baita, beste edozein ofiziotan gertatzen den bezala.

Pinpilinpussies taldeak 'Fuerza 3' diskoan batu dituen abestiak ezagutzeko aukera egongo da Berrizen

Kultur Etxean eskainiko dute kontzertua, 22:00etan, 360°HZuzenan zikloaren barruan



Ane Barcenak eta Raquel Pagesek osatzen dute Pinpilinpussies taldea.

BERRIZ • AITZIBER BASAURI

Ane Barcena durangarrak eta Raquel Pagesek osatzen duten taldearen lehenengo diskoa otsailean izango da kalean. Pinpilinpussies taldearen lehenengo lan luzea izango da eta *Fuerza 3* deituko da. Aurretik, bira labur bat abiatu dute Euskal Herrian. Ordizian eta Donostian jo ondoren, zapatuan, abenduaren 21ean, taldeak Berrizko Kultur Etxean eskainiko du kontzertua. 360°HZuzenean zikloaren barruan joko dute, 22:00etan.

Fuerza 3 diskoan batutako abesti berriak entzuteko aukera paregabea izango da Berrizkoa. Baita joan zen otsailean kaleratutako *80/B* lanean batutako kantak errepasatzeko ere. Taldeak jakinarazi duenez, ilusio handiz hartu dute Euskal Herrian jotzeko aukera. Pinpilinpussies taldeak Aloud Music diskoetxeagaz kaleratuko du diskoa.

Pop eta punk doinuak

Bederatzi abestik osatzen dute diskoa, eta bertan pop eta punk doinuak nahastuko dituzte, besteak beste, abuztuan aurreratu zuten moduan. Sevillan (Espainia) grabatu dute, Raul Perezegaz (Niño de Elche, Biznaga, Pony Bravo...).

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

R.P.S. 214/06

A. Urreta
podólogo

Adinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

hitz **#salduenak**

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

1^o **ZELDAK - GORPUTZ HONETATIK**
Elena Olave
(Balea Zuria)

2^o **ETXEAK ETA HILOBIAK**
Bernardo Atxaga
(Pamiela)

3^o **BASA**
Miren Amuriza
(Elkar)



120 bat jokalarik osatzen dute Ibaizabal Eskubaloia Taldea.

Ibaizabal Eskubaloia Taldea lanean dabil, Durangon emakumezkoen eskubaloia indartu eta ikusgarriago egiteko asmoz

Gaur egun, Ibaizabal Eskubaloia Taldeak 4 talde federatu eta eskola mailako beste 6 talde ditu; 120 bat jokalarik osatzen dute 2008an sortu zen kluba

ESKUBALOIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2003an, Begoña eta Lorea Oskoz ahizpek Durangon emakumezkoen eskubaloia taldea eratzea erabaki zuten. Garai hartan, herrian ez zegoen aukerarik eskubaloian jokatzeko, eta eskola kirolaren barruan beste aukera bat eskaintzeko asmoz sortu zuten taldea. 2008an, beste aurrerapauso bat eman eta Ibaizabal Eskubaloia Taldea sortu zuten. Pedro Arrazola taldeko presidenteak adierazi duenez, harrezkeron momentu on eta gogor asko bizi izan dituzte.

Taldeko presidenteak dio klubaren egoera ona dela gaur egun. "Hasieratik, beste kirol bat eskaini gura izan diogu jendeari, neskei batez ere, eta une honetan 4 talde federatu eta eskola mailako 6 ditugu. Beraz, eskubaloiak Durangon une gozoa bizi duela esan dezakegu", azaldu du Arrazolak.

Hala ere, jendearen aurrean eskubaloia ikusgarriagoa egiteko asmoz, joan zen barikuan taldeak aurkezteko ekitaldia egin zuten Landakon, lehenengoz klubaren historian. "Lan polita egiten gabilta eskubaloia bultzatzeko asmoz,

eta gaurko ekitaldian nabari da hori. Badakigu oso jende gutxi bizi daitekeela eskubaloitik, baina guk geurea bultzatzen jarraituko dugu. Horixe da gure asmoa, jendeari eskubaloia eskaintzea", esan du Arrazolak.

Lau talde federatu

Ibaizabalek lau talde federatu ditu une honetan, eta talde nagusia Bizkaia osoan jokatzeko dabil. "Gurea taldea umila da. Badakigu lau bat urtean taldea ezingo dela mailaz

Pedro Arrazola taldeko presidenteak dio eskubaloia taldearen egoera ona dela gaur egun Durangon

igo, baina ez dio ardura. Gure helburu nagusia harrobia bultzatzea eta indartzea da", jarraitu du presidenteak. Gainera, taldea indartu eta mailaz igotzea lortzen badute, oinarri sendoei egin gura dutela azaldu du Arrazolak. "Ez dugu gura taldea mailaz igo eta urte gutxiren

bueltan desagertzea. Hori ez dago gure asmoen barruan", argitu du.

Harrobiaren garrantzia

Ibaizabal Eskubaloia Taldean harrobia garrantzi handia du, eta baita lan integratzaile bat egiteak ere. Gaur egun, Jesuitetan eta Kurutzia- ga ikastolan eskaintzen dute eskubaloia, baina etorkizunean beste

Harrobiak garrantzi handia du Ibaizabalen; baita lan integratzaile bat egiteak ere

ikastetxe batzuetara ere zabaltzea dute helburu. "Eskubaloia probatu gura duen edonork aukera hori izatea da gure asmoa", gaineratu du.

Bestalde, taldeko presidenteak esan du ezinbestekoa dela babesle sare bat izatea Durangoko ume eta gazteei aukera hau eskaintzeko, eta egun dituzten babesleei esker eman gura izan dizkie.



Nagusien taldeak Bizkaia osoan jokatzeko dute.

Biharko Izarrakeko eta Master Kaiolako txapeldunek Zaldibarko Olazar txapelketa ere irabazi gura dute

Elizegik Mallabian jantzi zuen txapela; Zubizarretak, Zornotzan. Orain, elkarregaz, Zaldibarren nagusitu gura dute

ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO

Durangeldean, hiru pilota txapelketa nabarmentzen dira beste guztien gainetik: Zornotzako Master Kaiola, Mallabiko Biharko Izarrak eta Zaldibarko Olazar. Afizionatuetako pilotariak desiratzen egoten dira euretariko edozeinetan parte hartzeko. Iraitz Zubizarreta lazkaorrek badaki Master Kaiolan txapela janztea zer den, 2018an nagusitu zen eta. Aitor Elizegi asteasuarrak, oster, Biharko Izarrakeko txapela eskuratu du aurten, Salaberria bikotekideagaz. Orain, bikotea osatuz —lehenengoa aurrelari eta bigarrena atzelari— Olazar txapelketa irabazteko atarian daude, joan zen astean finalera sailkatu eta gero. Euren aurkariak atzo gauean erabaki ziren, Lerena-Uriondo eta Exposito-Lizeaga bikoteen arteko finalerdian.

Lau eta erdian, Larrazabal

Lau eta erdian, Iker Larrazabal finalerako sailkatuta dago. Kaiolan espezialista da Amurrioko pilotari

gaztea, ekainean Biharko Izarrak txapelketan argi geratu zenez. Orduan, Mallabiko lau eta erdiko txapela jantzi zuen, Gutierrez errioxarra sekulako joko erakustaldiagaz menderatuta. GRAVN

txapelketako irabazlea ere bada lau eta erdian, bere mailan. Beraz, Zaldibarko finalak bere ibilbideko unerik onenetarikoan harrapatuko du. Bere aurkaria Alberdiren eta Olaetxearen arteko finalerditik ir-

ten zen, atzo. Urtero legez, finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte, Urtezahar eguneko arratsaldean, Zaldibarko pilotalekuan. Finalean, opariak zozkatuko dituzte bertarazten direnen artean.



Aitor Elizegi eta Iraitz Zubizarreta.

Jokaldia

June Arbeo
Sarriugarte
Korrikalaria



Buruak hankak bezain azkar

“Gizartea gizabanakoz osatutako talde mota jakin bat da. Gizabanako hauen arteko harremanak nolabaiteko komunikazioa eta lankidetzak dakar”. Kirol indibidualetan pentsatzean, atletismoa da burura etortzen zaigunetako bat. Bakoitza norberarentzat entrenatu eta lehiatzen da, emaitza indibidualak lortuz. Badirudi ez dagoela talde sentimendurik, taldekideen laguntzarik, zure akatsak eta lorpenak zureak eta zuretzat baino ez dira. Baina kirol hain indibidual honetan izugarritzko garrantzia dauka inguruko laguntzak, entrenamendu taldeko kohesioak eta, lasterketetan argitara ateratzen ez den arren, honen guztiaren atzean dagoen talde lanak. Honi gizarteko jokatzeko eta lan egiteko moduarekin antzekotasun handia ikusten diot. Talde lana ezinbestekoa da, edozein arlotan, helburuak eta emaitzak lortzeko. Gizartea, izenak berak eta hiztegiko esanahiak dioen bezala, gizakien arteko komunikazioan eta lankidetzan oinarritzen da; pertsona betidanik bizi izan da multzoan, bakarrik bizirik irautea ezinezkoa baita. Gaur egun indibidualismorako tendentzia hartzen hasi da gizartea, eta zentzugabeko norgehiagoka batean murgildu gara: “Zeinek gehiago izan eta zein hobeto bizi”. Ingarukoei irabazteko zapaldu egin behar baditugu ere, geu onenak izatea baino ez zaigu axola.

Honela ikus dezakegu atletismoa ere, baina ikasi dut ingurukoekin lan egiteak zer nolako garrantzia daukan, hauek beti laguntza lez hartuz, eta ez arerio lez; askoz gehiago irabazi daitekeelako taldean lan eginez, eta ez bakarrik eta ondokoa baino hobea zarela pentsatuz. Bi buruk batek baino gehiago pentsatzen dutelako, eta lau hankak bik baino azkarrago arinetan egiten dutelako.

Santxibiri herri lasterketan parte hartzeko aukera domekan

Elorrioko herrigunean zehar antolatutako proba edonork egiteko modukoa da eta izen-ematea doakoa da

LASTERKETA • J.D.

Orain zortzi urte hasitako ohiturari eutsiz, Elorrion Santxibiri herri lasterketa antolatu dute domeka honetarako. Parte-hartzaileak udaletxe pareko plazatik abiatuko dira, 12:30ean. Edonork parte hartzeko moduko proba izango da, 5 kilometrokoa. Ibilbidea herrigutetik eta herri ingurutik izango da, laua, aparteko zailtasunik bakoa. Gabonen atarian herrian

jai-giroa sortzea da antolatzaileen helburua.

Umeen proba

Proba nagusiaren aurretik, ume eta gazteentzako lasterketak egingo dituzte, 12:00etan hasita. 450 metroko ibilbide bati itzuli bi emango dizkiote umeek. Bai proba nagusirako eta bai gazteen lasterketarako izen-ematea doakoa izango da.

Ioritz Gisasola Euskadiko bigarren mailara igo da

Aizkolari mallabitarra txapeldunorde geratu zen Otxandion lehiatutako hirugarren mailako txapelketan

AIZKORA • J.D.

Ioritz Gisasola aizkolari mallabitarra Euskadiko bigarren mailan lehiatuko da hurrengo denboraldian. Joan zen asteburuan Otxandion jokaturako hirugarren mailako txapelketan lortu zuen igoera. Gisasola azpitxapeldun geratu zen Eneko Saralegiren atzetik, eta aizkolari bi hauek lortu zuten igoera. Saralegi nafarrak 13 minutu eta 57 segundotan ebaki zituen

54 ontzako hiru pago eta 60 ontzako bi. Gisasolak 32 segundo gehiago behar izan zituen lan berdina amaitzeko. Txomin Amundarain nafarrak osatu zuen podiuma, hirugarren tokian geratuta.

Gisasolaz gainera, Durangaldeko beste aizkolari batek ere parte hartu zuen txapelketan. Luis Polanco otxandiarra bosgarren tokian sailkatu zen. 16.20ko denbora behar izan zuen lana amaitzeko.

Gimnastika erritmikoko gazteen erakustaldiak eskainiko dituzte asteburuan, Durangon eta Zaldibarren

GIMNASTIKA ERRITMIKOA • J.D.

Gabonetako gimnastika erritmikoko erakustaldiek aurten ere ez dute hutsik egingo Durangon eta Zaldibarren. Durangokoa, Uztai taldeak antolatuta, zapatu honetan izango da, 11:00etan, Landako kiroldegian, eta 2011tik 2014ra arte jaiotako

250 bat gaztetxok parte hartuko dute. Ekimena elkartasunagaz lotuz, postu batean Cafés Baquek emandako kafea eta Uztai taldekoek egindako bizkotxoak salduko dituzte. Batutako dirua La Cuadri del Hospi elkarteari emango diote.

Eneko Lambea Zaldibarren

Olazarmendi klubak antolatzen duen Zaldibarko erakustaldia domekan izango da, 11:30ean, Olazar pilotalekuan. Zaldibarko eta Santurtziko klubetako 40 bat gimnastak parte hartuko dute. Eneko Lambea goi mailako gimnasta leioarra ere Zaldibarren izango da. Junior mailan Espainiako txapeldun geratu da aurten, eta gizonen Lehen Mailan dabilen euskaldun bakarra ere bada.



Gimnasta gazteek urtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute.

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2020

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
	Hezgarri
	Abarkateruena
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Fonda
DURANGO	Hitz Liburudenda
	Arkarazo
ELORRIO	Ilargi
GARAI	Herriko Taberna
IURRETA	Urki
IZURTZA	Herriko Taberna
MALLABIA	Bastida Taberna
MAÑARIA	Bizkarra
OTXANDIO	Danoena Taberna
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi paper-denda



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Zornotza saskibaloit taldea garaipenaren beharrean dago azken postutik irten eta bolada txarrari buelta emateko

Mikel Garitaonandiaren mutilek zapatuan jokatuko dute, 18:30ean, C.B. Moron taldearen aurka, Larrean

SASKIBALOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2017an zilarrezko ligatik kanpora gelditu eta gero, 2018an berriro ere maila horretara igotzea lortu zuten Zornotza saskibaloit taldeko kideek. Hala ere, aurtun, 60 urte egin behar dituenen, taldeak oso bolada txarra bizi izan du eta bere egoera ez da batere ona. Azken zazpi partiduetan, Mikel Garitaonandiaren mutilek ez dute batere punturik batu, partidua guztiak galdu dituzte eta. Azken hamaika partiduetatik hamar galdu dituzte zornotzarrek.

Joan zen asteburuan, esaterako, eskualdeko taldeak Basket Navarra taldearen aurka jokatu zuen, Iruñean. Zornotzarrek ezin izan zuten ezer egin, eta nafarrek nagusitasunez lortu zuten garaipena, 85-68.

Sailkapenean azken postuan

Momentu honetan, Zornotza saskibaloit taldea azkenengo postuan dago sailkapen nagusian, CB Marbella taldearengandik,

azken aurreko taldearengandik, garaipen batera. Gaur gaurkoz, Garitaonandiaren mutilek maila galtzeko aukera asko dituzten arren, zornotzarrek ez dute dena galduta, eta oraindino ere hainbat jardunaldi dituzte aurretik bolada txarrari buelta eman, garaipenak lortzen hasi eta zulotik irteteko.

Zornotza Saskibaloit taldeak ez du garaipenik lortu azken zazpi partiduetan

Ez dago dena galduta

Zornotzarrek ez dute dena galduta, eta Zilarrezko ligan jarraitzeko aukerak dituzte oraindino. Denboraldia luzea da, eta zornotzarrei 20 jardunaldi gelditzen zaizkie aurtengo amaitzeko. Gainera, eurek ere badakite gaur sailkapenaren beheko aldean egon zaitezkeela eta bihar zulotik irtenda. Izan ere, zornotzarrek sailkapen buru izan



Aurtun 60 urte betetzen dituen taldea azken urteetako egoerarik txarrean dago.

ziren denboraldi hasieran. Beraz, gaur gaurkoz, Garitaonandiaren taldeak 20 partidua dauzka aurretik bolada eskasa iraultzeko.

Asteburu honetan etxean jokatu duten partiduan aukera aproposa izango dute horretarako. Zornotzarrek zapatuan

Zornotzarrek 20 partidua dauzkate bolada eskas honi buelta eman eta sailkapenean gora egiteko

jokatuko dute, 18:30ean, Sevillako C.B Moron taldearen aurka, Larrean. Sevillarrak bolada eskas batetik datoz. Azken hiru partidua galdu egin dituzte, eta, beraz, Garitaonandiaren mutilek aukera ezin hobea dute garaipena lortzeko.

Asteko kirolaria



EDU
OGANDO ARREGUI

LEGAZPIA, 1976

Edu Ogando gipuzkoarra Abadiñon bizi da gaur egun, baina aurretik Durango ere izan zuen bizileku.

“Aurrera begirako proiektu garrantzitsu bat umeentzat xake talde bat sortzea da”

Edu Ogandok Bizkaiko xake txapelketa irabazi du eta Maila Gorenera igo da

Sasoi hartatik, Larrasoloeta xake klubean dabil. Orain asteburu bi, Durangon lehiatutako Bizkaiko txapelketa irabazi eta Maila Goreneko izendapena jaso zuen.

Txapelketa berdindua izan zen?

Bai, oso berdindua. Lehenengo lau partidetan hiru irabazi eta atsedean bat hartu ostean, bosgarrenean Aitor Agirreren kontra galdu nuen eta bera jarri zen lider.

Baina azken txandan nik irabazi, berak berdindu eta hiru xakelari berdinduta geratu ginen lehenengo tokian. Nik neukanez desentparerik onena, azkenean neu geratu nintzen txapeldun.

Irabaztea itxaroten zenuen?

Ez, ez nuen irabaztea espero. Pre-siorik gabe joan nintzen, eta horrek lagundu egin zidala uste dut. Lehenengoz jokatu duzu Maila Gorenean?

Bai, lehenengoz eta hemendik aurrera ere bai. Banakako mailak norberaren garapenaren isla dira, zelanbait esanda. Taldeka lehiatzerakoan desberdina da, mailaz igo edo jaitsi zaitezke.

Lorpen honegaz, zer helburu duzu aurrera begira?

Ez dut helburu kontreturik. Orain arteko moduan, aurrerantzean ere ondo pasatzea eta ahalik eta ondoen jokatzeko izango dut helburu.

Eta klub moduan, Larrasoloetan zer helburu dituzue aurrera begira?

Aurtun zuzendaritza berria dugu eta klubari bultzakada bat eman gura diogu. Aurrera begira dugun proiektu garrantzitsu bat ume eta gazteei begirako talde bat sortzea da, xake eskola moduko bat. Izan ere, hainbat urte eman ditugu gazte berririk gabe. Orain proiektua diseinatzeko ari gara, eta ahalik eta lasterren martxan jartzea da gure asmoa. Gazteak xakera engantxatu daitezkeen gura dugu. Azken batean, etorkizunean kluba osatu-ko dutenak gaur egungo gazteak dira, eta harrobia landu gura dugu. Informazio gehiago www.durango-xake.es/eu orrian aurkitu daiteke.

CERAMICAS
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
www.macober.com

katerin
ardoak
**iñaki
uribe**

25^{urte}
Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**Inmobiliaria**
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

**AGENCIA INMOBILIARIA**
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • **www.fernandouribe.es**

//AUKERA
IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **139.000 €** / E.E.Z=E
AUKERA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea. **93.000 €** / E.E.Z=G
IURRETA: 3 logela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. ESTREINATZEKO. **97.500 €** / E.E.Z=E
ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea. Berriztatua. **98.000 €** / E.E.Z=G
KIRIKIÑO: 3 logela. Trastelekua. Berriztatua. **115.000 €** / E.E.Z=F
ATXONDO: 85 m². 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. 18 m²-ko lonja. **148.000 €**

//ETXEBIZITZAK SALGAI
PROMOZIO BERRIA. Santa Ana. 1,2 eta 3 logelakoak. Komuna. Trastelekua aukeran. **170.000 €**-tik aurrera.
PROMOZIO BERRIA. San Roke. Etxebizitza paregabeak. Garaje plaza bi dituzte denek. E.E.Z=D/ **175.000 €**-tik aurrera. BEZ-a barne.
PROMOZIO BERRIA. ZALDIBAR. 2 eta 3 logelakoak. **130.000 €**-tik aurrera.
ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERGAZ. Erretentxu. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **230.000 €** / E.E.Z=E
ALOKAIRUAN EROSTEKO AUKERAGAZ. San Inazio. 100 m². 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin. Sukalde eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. E.E.Z=E Alokairuan **650 €** / hileko sarrera, **12.000 €**.
IURRETA. 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m²-ko terraza. Trastelekua eta garajea. **276.000 €** / E.E.Z=E
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA. 110 m². 2 komun. 2 terraza. 8 gela ditu eta ezin hobe a da ofizinak, bulegoak edo akademia bat egiteko. **216.000 €** / E.E.Z=F
ALDE ZAHARRA. Etxebizitza altua. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta despentsa. Igogailua. Berriztatua. **185.000 €** / E.E.Z=E
BERRIZ. Bidegain. 3 logela, 2 komun, eskegitokia, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Ganbara eta garajea. **220.000 €** / E.E.Z=F
MATIENA: 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. **167.000 €** / E.E.Z=E
ABADIÑO: Familia bakarra. 484 m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitzeo aukeragaz. **325.000 €** / E.E.Z=G
MONTEBIDEO: 135 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. E.E.Z=E
KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. **BERRIZTATUA: 186.000 €** / E.E.Z=G
ARTEKALE: Erdigunean. 83 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. **175.000 €** / E.E.Z=E
GAZTELUA: Lursaila. 26.044 m². 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarrondo, zenbait partzelatan).

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIKIRUAN
MENDIZABAL: Itxia. 24.000 €-tik aurrera.
TABIRA: 30 m²-ko garajea. Argiagaz eta uragaz. 35.000 €.
ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.
ABADIÑO: 160 m². Egokitua. Dena erakusleioha 2 kaletan, 175.000 €
ABADIÑO: 75m². 75.000 €.
ZALDIBAR: Salgai. Ganbara zabala. Bulegorako edo estudiantorako egokia. 24-35 m². Ekonomikoa.
F.J. de ZUMARRAGA: Aukera. 114.000 €. SALMENTA. 150.000 €. Negoziagarria.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000 €-tik hasita.
DURANGO: Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa. 150.000 €.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobe a.
BERRIZ
Elizondo etxetalea: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
IURRETA
Maspe kalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, **despentsa eta egongela.**
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitzeo baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzeo lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzeo lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrria berriztatzeo. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000 €
ATXONDO: Baserrri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berriztuta. Zonalde egokia.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserrri bifamiliarra. Berriztatzeo. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeo.
BERRIZ: Baserrri ederra, Murgoitioiko zonaldean. 3 hektareako lursaila.
//BULEGOAK ALOKAIKIRUAN
ABADIÑO
40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIKIRUAN
Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.


www.inmoduranguesado.com

**DURANGO**
4 logela
100 m²
GOIENKALEA: 100 m². 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Gas naturaleko berogailua. Garajea aukeran. 150.000 €. C.E.E:E
150.000€

**ERMUA**
70 m²
ERMUA: 70 m². 2 (hirugarren gela bat ateratzeko aukera dago), egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. 2 terraza. Egoera onean.
124.000€

**ARAMOTZ**
4 logela
80,76 m²
DURANGO: 80,76 m². 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Hobekuntzaren bat behar du. 116.000 € C.E.E- prozesuan.
116.000€

**DURANGO**
4 logela
62 m²
JUAN DE ITZIAR: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Kanpoko balkoia, ekialdera eta mendebaldera ematen duena. C.E:F
115.000€

**SAN FAUSTO**
3 logela
60,6 m²
ZALDIBAR: 60,6 m². Argitsua. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Gas hargunea leihoraino. 82.500 € C.E:G.
82.500€

**MATIENA**
2 logela
51,9 m²
MATIENA: 51,9 m². 2 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. Igogailua jartzeko proiektuagaz. 12,40 m²-ko ganbara.
73.000€

//DURANGO
ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **160.000 €** / E.E.Z=E
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.
IBAIZABAL: logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000 €** / E.E.Z= E
KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. **160.000 €** / E.E.Z= G
KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. LEHEN 99.000 € /ORAIN **90.000 €** E.E.Z=F
MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000 €**. / E.E.Z=F
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeo 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**
TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 €** / E.E.Z=E
//ABADIÑO
ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 €** / E.E.Z=E
//BERRIZ
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **120.000 €** / / E.E.Z=F
ELIZONDO AUZOA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € / ORAIN **134.000 €** E.E.Z=G
ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 €** E.E.Z=E
ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 €** / E.E.Z=G
LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 €** / E.E.Z=E
SARRIA AUZOA: Baserrria 4.000 m²-ko lursailagaz. **400.000 €** / E.E.Z=E
//IURRETA
DANTZARI KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **93.000 €** / E.E.Z=G
FAUSTE: Baserrria lurzorugaz, **220.000 €** / E.E.Z=G
//MATIENA
ELORRIAGAZAR: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. **65.000 €** / E.E.Z=G
TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000 €** / E.E.Z=F
//OTXANDIO
ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 €** / E.E.E=F
OLETA AUZOA: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000 €** / E.E.Z=E
//ELORRIO
BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000 €** / E.E.Z=E

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrion...50 m2...igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan Abadiñon. Tel.:699 17 40 23

PISUA KONPARTITU
PISUKIDE BILA

Atxondo. Arrazolan (Atxondo) baserri batean bizi garen 3 neska feminista etxea partekatze pertsona baten bila gabiltza. Tel.: 650 90 14 91

Lana Formakuntza
LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsua eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak

zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz, Durangon. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsalde lan egin dezaket. 3 urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat. Titulua ere badaukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel: 688 64 06 04

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 612 42 06 78

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa tekniketan, edozein zientziatako eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo Whatsapp idatzi Tel: 688 64 59 83

LAN ESKAINTZAK

ANBOTOK banatzailea behar du Zaldibarren

ANBOTOK banatzailea behar du Zaldibarren barikuetan alea banatzeko. Beharrezkoa da euskaraz jakitea. Interesatuak deitu Tel.: 665 71 09 31

ETXEKO LANAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburutan edo orduka lan egiteko prest nago, Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali Tel.: 602 89 50 18 telefonora. Gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaindu, etxeko garbiketa lanak,

arropa lisaketa, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Bi ume zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu. Durangon, 8 eta 10 urteko bi ume zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Arratsaldetan, martxoak 20-maiatzak 10 bitartean (Aste Santuan ez). Tel.: 649 56 34 92

Haurrak zaindu. Umeak egun solteak (gaixorik daudenean) eta oporretan zaintzeko pertsona euskaldun bat behar dugu. Esperientzia edukitzea eskatzen da (erreferentziak eukinda hobeto). Nagore. Tel.: 629 75 76 32

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 643 72 71 98

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

PERTSONA HELDUA ZAINTEKO PERTSONA BEHAR DA. Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da. Tel.: 653 744 988

IRAKASKUNTZA

IRAKASLE BEHARRA. Eskolaz kanpoko laguntza emateko pertsona bat behar dugu gure akademian. Ingelesa ondo jakitea ere baloratuko da. Tel.: 686 81 02 03

Portugesezko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

Klase partikularrak (LH/DBH). Lehen hezkuntzako edo DBHko 1go edo 2. mailako ikasleei edozein irakasgaietako lanak egiten laguntzeko edo azterketak prestatzeko prest nagoen 17 urteko neska bat naiz. Aurretik beste ume batzuekin lan egin dut. Orain, zientzia batxilergoko 2. maila egiten ari naiz. Informazio gehiago eskuratzeko, Tel.: 651 30 62 34

Denetarik
SALDU/EROSI

SALDU

Kapoiak salgai. Gabonetan etxean kapatu eta hazitako kapoia probatu nahi? Bizirik zein jateko prest. Enkarguak. Tel.: 626 76 10 10



Errigorako otzara bi eta Atxarte mendi dendako 150€ko bonuen zozketako irabazleak:



Gurutze Aiartzaguena
Atxarte mendi dendako 150€ko bonua



Mª Carmen Pujana
Errigorako otzara



Iraide Iriondo
Errigorako otzara



Botikak	
BARIKUA, 20 - 09:00-09:00	DOMEKA, 22 - 09:00-09:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 23 - 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 21 - 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 24 - 09:00-09:00
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	09:00-22:00
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	EGUAZTENA, 25 - 09:00-09:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	EGUENA, 26 - 09:00-09:00
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
09:00-22:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Luar (788. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak etxeko argirik disti-ratsuenari! Zoragarria zara! Zorionak zure 10. urtebetetzean. Asko maite zaitugu, **Uxue**. Familia osoa zure urtebetetzea disfrutatzeko desietan gaude.



11 urte bete ditu gure **Julenek**! Zorionak danon partez!



Abenduaren 16an **Telmok** 6 urte egin zituen eta 21ean **Martinek** 8 egingo ditu. Mosu handi handi bana bialtzen diegu gizontxo egin diren bi deabru hauet.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 16° / 8° ☁️

DOMEKA 🌡️ 16° / 11° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 16° / 8° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 18° / 12° ☁️

EGUAZTENA 🌡️ 15° / 9° ☁️

EGUENA 🌡️ 15° / 8° ☁️



afedeko 130€-ren **5** bonuen

zozketako irabazleak:
Olaia Orbegozo, Batirtze Landajo,
Miren Trueba, Eneko Cebrian eta Amagoia Zuazo



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

“Martxoan naiz jubilatzekoa eta idiak entrenatzen hasteko esperantza dut”

Jose Luis Galarza Iurretako Goiuria auzoan jaio eta hazitakoa da, baina gaur egun Abadiñon bizi da. Asteko zazpi egunetan du zeregina, lantokian eta Amaitermingo sukaldean banatuta, eta ez du opor egunen falta igartzen

Jose Luis Galarza Gorrotxategi 'Txebis' (Iurreta, 1958)
• Sukaldaria

Berba bitan

Jateko saltsa bat?

Ehiztari saltsa edo bizkaitar erara

Hanburgesa ala pizza?

Bata ere ez. Haragi-xerra gu-rago.

Plater bat?

Bakailaoa pil-pilean

Sukaldari bat?

Asko daude... Jose Luis Bernaola 'Arrati'

Denbora pasatzeko, zer egingo zenuke?

Lagunekin buelta bat eman

Zaletasun bat?

Ostalari edo tabernariak zale-tasun guztiak egiten ditu bere

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Saltsa guztietan sartuta dabil Jose Luis Galarza. Kazola artean dabil gustura, eta idi-demekin probatzea du helburu. Azken urteetan, Olentzerori laguntzen ibili dira Jose Antonio anaia eta biak, gurdia eramaten duten idiak gobernatzeko. Inguruko euskal ezkontzetan ere ez dute hutsik egin Galarza anaien idiek.

Aste barruan lantokian, eta asteburuan, Amaitermingo sukaldean. Deskantsurako tarterik baduzu?

Beharrea hartzen du pertsonak deskantsua, geldiegi egonez gero berriro martxan ipintzea gehiago kostatzen da eta. Zapatu eta domeka arratsaldean hartzen dut jai.

Jubilatzea tokatzen zaizunean, zer egingo duzu?

Lana topatu. Martxoan naiz jubilatzekoa, eta idiak entrenatzen hasteko esperantza dut. Dena dela, Amaitermingo sukaldean jarraitzeko asmoa dut. Bederatzi urte daramatzat han.

Sukaldari ona zarela entzun dugu. Non ikasi zenuen?

Ona ez, halamoduzkoa. Durangoko Bikandi tabernan hasi nintzen kozina kontuetan, 1973an. Gero, Goiurian ere ibili nintzen: lau urte Ikuspegin eta 29 urte Goiuria Erretegian. Soldaduskan ere ibilia naiz.

Ondo moldatzen zara kazola artean...

Defendatzen naiz. Oilogorra eta buztana presatzeko enkarguak ere hartzen ditut etxean,

eta elkarrekin ere joaten naiz kozinatzen. Afizioz egiten dut eta borondatea eskatzen diet; gastuari aurre egiteko lain. Axpeko Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketan ere kozinatzen dut, 80 bat lagunentzat. Bihar, San Tomas egunean, Bilbora joango naiz, arkume-txuleta erretzera.

Catering-a duzu.

Baina talde txiki-kientzat, e!

Idiak ere badituzu afizio...

Ahal du-dan guztietan joaten naiz

idi probak ikustera; asko gustatzen zaizkit. Ez dut hutsik egiten. Gure idi bat Lemoizko beste batek uz-tartu gura nuke, eta idi-demetarako balio duten ikusi.

Anaiagaz batera idiak hazi ere egiten dituzu. Noiz hasi zineten?

Badira 8-10 urte behi bat ekarri genuela, eta haren txahalak idi izateko hazten ditugu, Goiurian (Iurreta). Orain lau ditugu: bi sei urtekoak, urte biko bat eta urte-beteko beste bat. Ez dabilta idi probetan, eta erakutsi egin behar zaie. Lehen, probetarako balio ez zuten idiak erosten genituen, eta loditu artean erakustaldi batzuetan ateratzen genituen. Lau behi ere baditugu.

Olentzeroren laguntzaile ere izan zarete idiekin?

Bai. Durangon lehenengo, eta Gasteizen azken urteetan. Durangoko, Abadiñoko eta Oromiñoko Euskal Ezkontzetan ere parte hartu dugu, eta Gasteizko Erdi Aroko azokan ere bai. Harriaren Bidea, Gasteizko Andra Mari Zuria eta Ajarteko harrobiak lotzen dituen ibilbidea ere egin dugu; Andra Mari Zuriaren katedrala eraikitzeke egiten zuten bidea da.

Lan politak dira...

Bai, eta arriskutsuak ere bai. Anaiak idiekin istripua izan zuen behin, Gasteizko Erdi Aroko azokan, eta harrezkero ez dute gehiago erabili idirik. Beti erabili ditugu idirik mantsoenak, baina...

Egunak 36 ordu balitu...

Horrek ere okupatuta izango nituzke.

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren Irakaslea



Negu usaina

Azaroa, ostirala, arratsaldeko 4rak. Zerua haserre. Tximistak laino artetik, eten gabe, dantzan ateratzen dira eta hauekin sinkronizatuta, lasterrera, trumoiaren danbarrada. Termometroa ahul, gero eta beherago eta haizeak eta euriak bazter guztiak astintzen dituzte. Zuhaitzak biluzten ari dira negua lozorroan igarotzeko. Mendiak ere hasi dira aro berriari ongi-etorria emateko soineko zuriak jantzen.

Giro honek negura garamatza eta bere usainak gero eta nabariagoak dira. Eskoletako umeak kalerik-kale eta etxerik-etxe polboroiak saltzen dabilta. Zerbait dendatara erakusleihatara zapo eta usain askotako turroiak, txokolateak, etab. keinuka ari zaizkigu gure etxetara eramanez ditzagun.

Kale bazterretan hasi dira gaita goxo eta usaintsuak saltzen gure barneak berotzeko. Gure sukaldeetan, kanpoko hotzari aurre egiteko, amamak edo aitak egindako txokolatea dugu zain. Dagoeneko hasi dira kaleak argiz apaintzen. Olentzero ere prestatzen ari da lasterrera helduko zaion lan neketsu baina politari aurre egiteko, eta urrunera usaintzen dugu bere piparen ke karamelatua. Aurten onak izan garenez ez du ikatzik ekarriko; horregatik ez dugu nabaritzen bere usain sarkorrik.

Presta gaitezen gu ere eguraldi eta garai honekin disfrutatzen. Atera dezagun barruan daramagun umea eta gure umeekin bat eginda jolastu, dantzatu eta ondo pasa dezagun “malaletxea” alde batera utzita.

Goza neguko usainekin eta izan gaitezela zoriontsu! Gabonak ondo igaro eta urte zaharra behar den bezala agurtuz, eman eskua urteberri oparo, osasuntsu eta zoriontsuari. Hala bedi!

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, Kabilduoste zona eksklusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com